

Usurbilgo Udala

2018KO MAIATZAREN 29AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Xuban Zubiria Elexpe
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Irene Gartzia Palacios
Miren Josune Estella Arranz
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2018ko maiatzaren 29an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.


Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- 2018/03/27KO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Alaitz Aizpurua abstenitu egin da ez zelako egon bilkuran.

Batzarkideek, gehiengoz, 2018ko martxoaren 27ko ohiko bilkurako akta onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2018KO APIRILAREN 16TIK MAIATZAREN 18RA (2018/0344-2018/0528)



Usurbilgo Udala

Alkatetzak 2018ko apirilaren 17tik maiatzaren 18ra bitartean (2018/0344–2018/0528) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2018KO ZERGA ORDENANTZETAN ALDAKETAK BEHIN BEHINGOZ ONARTZEA.

ALAITZ AIZPURUA: Batzordean ere aztertu genuen gai hau. Badakizue zerga ordenantzak urte hasierarako, iraila-urrian onartzen ditugula baina bada beste ikasturteko zergak edo aldaketak egiten direnak. Hauek dira, batetik, udal jabetza erabiltzeagatikako tasetan d) puntuan udal bide publikoen lur, lur azpi edo lur gainaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezietan, urte hasierako proposamenean bateratze..., hor kontzeptu desberdinak zeuden eta horiek txukuntzen egon ginen baina gabezi bat nabaritu dugu. Han aipatzen ziren terrazak, kutxazain automatikoak edo salmenta-makinez aparte ere badirela bestelako erabilerak, nahiz eta oso gutxi eman, badira, eta horiek ulertzen da ez dagoela irabazi asmorik, eta bi terrazak 2,21 euro bada tasa, horiek baino bajuagoa izan beharko lukeela eta proposatzen da beste erabilerak atala sartzea eta 1,50 izatea.

Bigarren puntua izango litzateke zerbitzuak eskaini edo udal jarduerak burutzeagatik prezio publikoetan a) atalean Etxez-etxeko zerbitzua emateagatikako prezioak aldatzea. Kasu honetan, gerora hurrengo puntuetan Jonek azalduko digu Etxez-etxeko zerbitzuaren inguruan dauden aldaketa guztiak, baina horrekin batera prezioa ere egokitzea proposatzen da eta hori ordenantza fiskalean txertatzen da.

Laneguneko prezioak eta jaiegunetako prezioak ditugu eta orduko gutxiengo kopuru bat eta gehienezko kopuru bat. Diru sarreren arabera "horquilla" hori izaten da, diru sarreren arabera gutxiengotik gehiengora izan daiteke prezioa eta aldatzen dena da gehienezko kopurutan lanegunetako prezioan 18,87 izatetik 15 eurora pasako litzateke eta jai egunetako prezioa 22,26 izatetik 18 eurotara pasako litzateke. Esan beharra dago prezio hauek, gero Jonek agertuko du baino, eskualdeko lanketatik adostasunez hartutako prezioak direla. Etxez-etxeko laguntzan ikusiko dugu mejora batzuk egiten direla eta mejora horiekin batera prezioak ere modifikatzen dira eta ulertzen da gehiengozko prezio horiek jaitea.

Hirugarren aldaketa izango litzake udaleko kirol instalazioetan Oiardo kiroldegiko ikastaroetan aurten ez da proposatzen igoera orokorrik egitea, batetik justu aurreko ikasturtean 1,9 igo zen eta beraz horrekin beti edukitzen dugun irizpidea ikastaroak beren burua finantzatzeko ahalmena badute, beraz, ez dugu igotzeko beharrik ikusi. Bai jaso dena da nolabait dagoeneko eskaintzen diren ikastaroak eta ordenantzan jaso gabe zeudenak, hauek ez dira ikastaro berriak baizik eta ordenantzan jasotzea falta zen. Hor ez dira oso ondo markatuta ikusten baino izango lirateke hirugarren lerroan pilates jartzen duen horretan aquagym eta body balance sartzen dira prezio tramo horretan, 286 euro, hurrengoan bi egunetako spynning-ekin batera GAP eta



Usurbilgo Udala

tonifikazioa izango lirateke sartzen direnak prezio horretan, baita ere, eta azkeneko lerroa berria da, hipopresiboak astean bi egunez 147,45 euro jartzen zaio prezioa.

Hurrengo taulatxoan, berriz, azkeneko lau lerroak helduen igeriketa hobekuntza astean hiru egunez, helduen igeriketa gidatua astean bi egunez, kirol txokoak astean bost egunez eta patinajea eta eskalada astean bi egunez.

Esan bezala horiek dagoeneko egiten diren ikastaroak dira baina hemen ordenantzan jasotzea falta zen eta igoerarik ez, baina horiek gehitzea proposatzen da.

ALKATEA: Proposamenari buruzko galderarik edo zerbait esateko?

FERMIN ORUE-ECHEVARRIA: Ni ez nintzen batzordean egon, baina honek lotura dauka aurrekontuekin eta nola aurrekontuen aurka bozkatu nuen eta koherentzia pixkabat mantentzearren, aurka bozkatuko dut.

ALAITZ AIZPURUA: Aurrekontuekin bai, baina aurrekontuko partida batekin dauka zerikusia. Honek gehiago du zerikusia ordenantza fiskalekin, urrian oker ez banago onartutakoaren haritik. Hau ordenantza fiskalaren modifikazio bat da, orduan aurrekontuekin baino gehiago dauka zerikusia ordenantza fiskalarekin. Aurrekontuko partida batekin izatekotan, edo hobe esan hirurekin, kiroldegiko justu aipatu ditugun hiru. Baina beno aurrekontuarekin zerikusia daukala esatea gehitxo.

ALKATEA: Beraz bozkatzera pasako gara.

Batzarkideek, Ogasun batzordearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Ogasun Batzordeak, 2018ko maiatzaren 14ko ez-ohiko bileran, Alaitz Aizpurua, Xabier Arregi eta Jone Urdanpilletaren (EH Bildu) aldeko botoekin eta Josune Urkolaren (EAJ) abstentzioarekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA


LEHENA.- 2018ko Zerga-Ordenantzetan aldaketa hauek behin-behingoan onartzea:

7.- UDAL JABETZA ERABILTZEAGATIK TASA.

D.- UDAL BIDE PUBLIKOEN LUR, LUR AZPI EDO LUR GAINAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIA.

Tarifa berria gehitzea:

Beste erabilerak	1,50
------------------	------



Usurbilgo Udala

8.- ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL JARDUERAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK.

A.- ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA EMATEAGATIK.

Taula eguneratzea:

	Gutxienezko kopurua €/orduko	Gehienezko kopurua €/orduko
Laneguneko prezioa	0,28	15
Jaieguneko prezioa	0,33	18

B.- UDALEKO KIROL INSTALAZIOAK.

OIARDO UDAL KIROLDEGIA
IKASTAROAK IKASTURTEKO PREZIOA

Taula osatu:

Ikastaroa	Abonatuak
Zumba eta Aerobik astean 2 egunez	137,55€
Maintentze gimnastika 3 egunez	206,35€
Pilates, Aquagym, Body Balance eta Jumping astean 2 egunez	286,15€
Spining eta Gap+Tonifikazioa astean 2 egunez	229,30€
3.Adinako Gimnastika astean 2 egunez	62,35€
Igeriketa umeak: Dordoka	429,20€
Igeriketa umeak: Karramarro	382,00€
Igeriketa umeak: Olagarro eta Antxoa	286,15€
Igeriketa umeak: Angula eta Izurde	229,30€
Yoga, astean behin (Ordu eta erdi)	171,95€
Hipopresiboak, astean 2 egunez	147,45€

Ikastaroa	Iraupena	Abonatuak
Haurtxoentzako igeriketa ikastaroa, astean 2 egunez	3 hilabete	143,05€
Helduen igeriketa hastapena, astean 4 egunez	1 hilabete	63,45€
Helduen igeriketa hobekuntza, astean 3 egunez	3 hilabete	114,60€
Helduen igeriketa gidatua, astean 2 egunez	3 hilabete	112,10€
Kirol Txokoak, astean 5 egunez	1 hilabete	115,00€
Patinajea eta Eskalada, astean 2 egunez	3 hilabete	140,40€

BIGARRENA.- Hartutako erabakia jendaurrean jartzea, bai udal iragarki taulan baita ere Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, hogeita hamar egunetan zehar interesatuek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.



Usurbilgo Udala

HIRUGARRENA.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak behar diren behin betiko erabakiak hartuko ditu, aurkeztu izan diren erreklamazioak ebatziz eta Ordenantzaren behin betiko idazketa, beraren indargabetzea edo eta, behin behineko akordioan aipatutako aldarazpenak onetsiz. Erreklamaziorik aurkezten ez deneko kasuan, ordurarte behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

LAUGARRENA.- Edonola ere, aurreko atalean aipatzen diren behin betiko akordioak, izaera hori eman zaien behin behinekoak barne direlarik, eta Ordenantzen edo beraren aldarazpenen testu bateratuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuak izan beharko dira, ez direlarik indarrean hasiko argitaratze hori burutua izan ez dadin artean.”

Bozketa egin da, emaitza honekin:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Aurkako botoa: Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

4.- ZIGOR ESPEDIENTEA: ZAKUR ARRISKUTSUAREKIN ARAU HAUSTE LARRIA (HZ.08/2018-0172 ESP.).

ALKATEA: Gai-zerrendako laugarren eta bosgarren puntuak zakur arriskutsuekin lotutako zigor espedienteak dira eta diktaminatu gabe datoz. Kontua da ez dela Zerbitzuen batzorderik egin hil honetan eta justu espediente hauek iraungitzen dira hurrengo plenoa baino lehen, beraz, zigor hauek gauzatze bidean jartzeko derrigorrez hartu beharrekoa da gaur erabakia hemen eta horregatik eskatuko diot udalbatzari lehenbizi puntu hauek tratatzea, ondorenean tratatu ahal izateko noski. Orduan lehenbizi bozkatuko duguna da ea ados gauden laugarren puntua gai-zerrendan sartzearekin.

Puntu hau alkatearen proposamen moduan datorrenez, hasteko, batzarkideek aho batez berretsi dute gaurko plenoan tratatzea.

ALKATEA: Orain Joneri pasako dio hitza.

JONE URDANPILLETA: Bi espedienteak antzekoak dira eta aprobetxatuko dut azalpena batera emateko.



Usurbilgo Udala

Bi espedienteek zakur arriskutsuekin zerikusia izan dute, zakur horiek pertsonak erasotu dituzte, beraz, larritzat hartzen dira arau-haustea.

Xabierrek esan duen bezala iraungitzat eman ziren otsailaren hogeita zazpiko udalbatzan, baina oraindik ere preskribatu gabe daude, beraz, beste prozedura bat berriro ireki da. Arau-hauste larri hauek erakartzen dute isun bat jartzea, kontua da lehenengo puntu honetan, 172 espediente osatzen duen honek, alegaziorik ez zuen aurkeztu bere garaian eta honi isun osoa edo arau-hauste larrietako isuna jartzen zaio, 300 euroko isuna.

Aldiz bigarren espedienteak alegatu zuen eta onartu zuen bere akatsa edo gertatutakoa eta horrek jasoko du murrizketa bat isunean, %20ko murrizketa.

Biak antzekoak dira, beraz, bozkatuko dugu azalpen hauekin.

ALKATEA: Galderarik?

Batzarkideek, alkatearen ebazpen proposamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: HZ.08/2018-0172

JIEL jaunaren aurkako zigor-jardunbidea animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren xedapenen urraketagatik irekitako espediente zigortzailea aztertu ondoren , eta espediente izapidetzen duen instruktoreak egindako ebazpen proposamena kontuan harturik, honako proposamena egiten dio Udalbatza plenoari:

Aurrekariak

2017ko uztailaren 26ko zinegotzi delegatuaren 2017/0786 dekretua eta hura zuzentzen duen abuztuaren 10eko 2017/0841 dekretu bidez JIEL jaunaren aurkako HZ.08/2017-0291 zigor jardunbideari hasiera eman zitzaion.

2017ko abuztuaren 21ean jakinarazi zitzaion JIEL jaunari zigor espedientearen hasiera, 15 eguneko epea emanez jardunbidearen izapidegilea urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritakoaren arabera errefusatzeko, edota ongi irizitako alegazioak, dokumentuak edota informazioak aurkez zitzen. Era berean, frogaldia irekitzeko eskabidea egiteko eta egoki ikusitako frogabideak proposatzeko.

2017ko irailaren 8an JIEL jaunak alegazioak aurkeztu zituen, eta 2017ko irailaren 15ean Udaltzainburuak alegazioa aztertu eta dagokion txostena eman zuen, hura ezetsiz.

2017ko urriaren 24an jaso zuen JIEL jaunak zigor proposamena; 2/1998 Legeko 39. artikuluari jarraiki, 15 egunetako epea eman zitzaion alegazioak aurkezteko



Usurbilgo Udala

Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2018ko otsailaren 27an egindako ohiko bilkuran, JIEL jaunaren aurkako HZ.08/2017-0291 zigor jardunbidea iraungitzat ematea eta arau-haustea ez dela preskribatu onartu zuen aho batez.

Ikusirik

- Usurbilgo udaleko udaltzainburuaren 2017ko uztailaren 13ko salaketan adierazten denaren arabera, animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantza, eta 101/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoa, urratu dira. Aipatu idatzian 101/2004 dekretuko 4. artikuluari egiten zaio erreferentzia, zakurren jabearen edo edukitzailearen betebeharren arten gune publikoetan txakurrak kontrolatuta eraman behar direla gogoraraziz, eta ez betetze honek dakarren arau-haustea jasoz. Salaketan agertzen diren datuen arabera arau-hauste eguna 2017ko maiatzaren 30a da eta arau-hauslea berriz JIEL jauna, txakurraren jabea, udaltzainburuak salaketarekin batera gehitu dituen dokumentazioan ikus daitezkeen datuen arabera (ikus espedienteko dokumentazioa).
- Udaltzainburuak egindako txostenean JIEL jaunaren aurka dagokion zigor espediente irekitzea proposatu du animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantza, eta 101/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoa 4. atala urratzeagatik, hau da, zakurrak kontrolatua ez eramateagatik eta beraien ezaugarrietara egokitutako kate edo uhal bati lotuta ez eramateagatik, aipatu arau-urratzearen sailkapena **larria** izanik.
- 2018ko apirilaren 11ko zinegotzi delegatuaren 2018/0335 dekretu bidez JIEL jaunaren aurkako HZ.08/2018-0172 zigor-jardunbideari hasiera eman zitzaion, prozeduraren instruktore eta idazkaria eta prozedura ebazteko organo eskuduna izendatu, eta alegazioak aurkezteko epea eman eta besteren artean, 39/2015 legearen 64.2.f artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, prozedura hasteko erabakiaren edukiaz aurreikusitako epean alegaziorik egin ezean, erabaki hori ebazpen-proposamentzat hartu ahal izango da inputatutako erantzukizunari buruzko irizpen zehatz bat duenean, eta horrek lege beraren 89.artikuluan jasotako ondorioak izango lituzke.
- JIEL jaunak ez du alegaziorik aurkeztu.

IKUSIRIK

Urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legeak honako hau jasotzen du bere 64.2.f. artikuluan:

2. Prozedura hasteko erabakiak honako hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

f) Adieraziko da alegazioak egiteko eskubidea eta prozeduran entzuna izateko eskubidea badela, eta haiek baliatzeko zer epe dauden; orobat ohartaraziko da ezen, prozedura hasteko erabakiaren edukiaz aurreikusitako epean alegaziorik



Usurbilgo Udala

egin ezean, erabaki hori ebazpen-proposamentzat hartu ahal izango dela inputatutako erantzukizunari buruzko irizpen zehatz bat duenean.

Goian aipatu bezala, JIEL jaunak ez du alegaziorik aurkeztu, eta prozedura hasteko erabakiak erantzukizunari buruzko irizpen zehatza jasotzen duela ulertzen denez, orduan emandako hasera erabakia ebazpen proposamentzat hartu daiteke, eta beraz, dagokion zehapena ezarriz Udalbatza Plenoari bideratzeko proposamena egitea dagokiola irizten du instruktore honek.

Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantza (GAO 2011-05-09) 16. artikuluan jasotzen dira bide publikoan txakurrak edukitzean bete beharreko baldintzak; 12. artikuluan jasotzen da bestalde animaliak eraso egiten badu nola jardun. Eta 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, *Kode Zibilaren 1905. artikuluan ezarritakoaren arabera, animaliaaren edukitzailea izango da animaliak sortu ditzan kalte, galera eta arazoaren erantzulea.*

Aurreko xedapenak aintzat harturik eta espedientean aurkitzen den dokumentazioa eta frogak ikusi ondoren, burututako egintza arau-urratze **larria** dela, Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantza (GAO 2011-05-09) 29.2.g) artikulua arabera.

Instruktore honen ustez, **frogatuta** geratu dela aipatutako **arau-urratzea eta erantzulea**, Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 37. artikuluan xedatutako frogaldia ireki beharrik gabe, izan ere Usurbilgo udaleko udaltzainburuaren 2017ko uztailaren 13ko salaketa eta espedienteari gehitu dizkion dokumentuak nahiko frogak direla eta arau-hausleak aurkeztutako idatzian gertaera onartu duela.

Salaketa-egilearen funtzioen artean, 2010/1175 alkatetza dekretuaren bidez onartuak (2014/0274 alkatetza dekretu bidez bere horretan mantentzen direnak), behar izanaren eta zerbitzuaren arabera udaltzain funtzioak betetzea aurkitzen dela, besteak beste, eta hauen artean udal organoek jaulkitako arau, xedapen edo egintzen konplimentuak arduratu ikuskatze, salaketa eta nahitaezko betearazpen ekintzen bidez: ordenantza, araudi eta udal akordioaren betetzearen zainketa. Zentzu berdinean aintzat hartu behar dela martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoaren 53.1 artikulua, Segurtasun Indarrei buruzkoa, izan ere, Udaltzaingoak honako funtzioak bete beharko ditu: ordenantzei, bandoei eta gainontzeko udal xedapenei dagokienez, zaintza administratiboa bere eskumenaren eremuan. Azkenik, Usurbilgo Udaltzaingoaren araudiak (GAO 1990-04-12) 1. artikuluan xedatzen du Usurbilgo Udaltzaingoa osatzen dutenei Agintaritzaren Agente izaera aitortzen zaiela. Bestalde, 5. artikulua arabera udaltzainkideek, zerbitzutan dihardutela, Agintaritzaren Agentetzat aitortuko dute beren burua lege-ondorio guztietarako. Eta 3. artikulua baitan, besteak beste, Udaltzaingoi honako eginkizuna dagokio, udalak ematen dituen udal ordenantzak, alkategoaren bandoak, arategiak eta udal erabaki guztiak zehazki beteak izan daitezela galdatzea.

Salaketa-egileari Agintaritzaren Agente izaera aitortzen zaiola, ondorioz, bere salaketa frogak nahikoa dela ondorioztatzen dela salatutako pertsonaren errugabetasun-presuntzioa indargabetzeko. Agintaritzaren Agente izaera duten funtzionarioek



Usurbilgo Udala

adierazitako gertakariei Legeak froga-balioa esleitzen diela (39/2015 Legeko 77.5 artikulua). Udaltzainburuaren txostena administrazio-espeditentean sartuta dagoela eta honek froga gisa balio duela, are gehiago interesatuak alegaziorik aurkeztu ez duenean. Agintaritzaren Agentearen salaketari Legeak nahiko indar esleitzen diola salatutako gertakariak ziurtatzeko eta ondorioz isuna jartzeko ekintza zuzenbidezkotzat hartzen dela.

Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 30.1.b) artikulua arau-urratze larrirentzat ezar daitezkeen **zehapenak** zehazten dituela:

30. artikulua. Zehapenak.

1. Animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearen arabera, animaliak babesteari buruzko arau-hausteak honako zenbateko hauek dagozkien isunekin zehatuko dira:

(...)

b) Arau-hauste larrietarako isuna: 300,52 €-tik 1.502,53 €-ra.

(...)

Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 32. artikulua 1 atalak berriz **zehapenak ezartzeko mailaketa** zehazten dituela:

1. Isunen zenbatekoa mailakatzeko eta aurreko artikuluko 3. idatz-zatian aurreikusitako zehapenen iraupena zehazteko, honako inguruabar hauek kontuan izango dira:

- a) Egindako arau-haustearen transzendentzia soziala eta sanitarioa, eta eragindako kaltea.
- b) Legez kanpoko irabazi-asmoa agerikoa izatea eta arauhaustetik irabazitakoaren zenbatekoa.
- c) Arauak hausten segitzea. Zehapen-espeditentea abiarazi aurreko bost urteko epean Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteren bat administrazio bidezko ebazpen irmoz zehapena ezarri bada, arauak hausten segitu dela ulertuko da.
- d) Arau-haustearen gaitzespen-mailan eragin dezakeen beste edozein, bai aringarria bai astungarria. Horretarako, bereziki esanguratsua izango da animalien aurka erakutsitako bortxakeria haurren edota adimen-urrituen aurrean egin izana.

Espeditentean dagoen dokumentazioa aztertuta, instruktoreak egindako proposamena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

LEHENENGOA: JIEL jaunak Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 29.2.g) artikuluan xedatutako arau-urratze larria burutu du, hau da, kalteak eragin ditzaketen animaliak zaindu eta babesteko beharrezko eginbidea ez izatea, espeditentean aurkitzen den dokumentazio eta frogen baitan.



Usurbilgo Udala

BIGARRENA: JIEL jauna da arau-haustearen erantzulea, Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 6. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeko 8. eta 9. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriaz.

HIRUGARRENA: JIEL jaunari, burututako arau-hauste larria dela eta, Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 30.1.b) atalean aurreikusitako zehapena jartzea, hain zuzen ere, 300,52 euroko isuna ezartzea ordenantza bereko 32. artikuluko 1. atalean xedatutako irizpideak eta espedienteko dokumentazioa kontuan hartuta, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeko 7. eta 14. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriaz.”

Bozketa egin da, emaitza honekin:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- ZIGOR ESPEDIENTEA: ZAKUR ARRISKUTSUAREKIN ARAU HASTE LARRIA (HZ.08/2018-0174 ESP.).

Puntu hau alkatearen proposamen moduan datorrenez, hasteko, batzarkideek aho batez berretsi dute gaurko plenoan tratatzea.

Batzarkideek, alkatearen ebazpen proposamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: HZ.08/2018-0174

JMIM jaunaren aurkako zigor-jardunbidea animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren xedapenen urraketagatik irekitako espediente zigortzailea aztertu ondoren , eta espedientea izapidetzen duen instruktoreak egindako ebazpen proposamena kontuan harturik, honako proposamena egiten dio Udalbatza plenoari:

Aurrekariak

2017ko uztailaren 26ko zinegotzi delegatuaren 2017/0787 dekretua eta hura zuzentzen duen abuztuaren 10eko 2017/0840 dekretu bidez JMIM jaunaren aurkako HZ.08/2017-0292 zigor jardunbideari hasiera eman zitzaion.



Usurbilgo Udala

2017ko abuztuaren 17an jakinarazi zitzaion JMIM jaunari zigor espedientearen hasiera, 15 eguneko epea emanez jardunbidearen izapidegilea urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritakoaren arabera errefusatzeko, edota ongi iritzitako alegazioak, dokumentuak edota informazioak aurkez zitzan. Era berean, frogaldia irekitzeko eskabidea egiteko eta egoki ikusitako frogabideak proposatzeko.

2017ko irailaren 1ean JMIM jaunak alegazioak aurkeztu zituen, eta 2017ko irailaren 15ean Udaltzainburuak alegazioa aztertu eta dagokion txostena eman zuen, hura ezetsiz.

2017ko urriaren 26an jaso zuen JMIM jaunak zigor proposamena; 2/1998 Legeko 39. artikuluari jarraiki, 15 egunetako epea eman zitzaion alegazioak aurkezteko.

Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2018ko otsailaren 27an egindako ohiko bilkuran, JMIM jaunaren aurkako HZ.08/2017-0292 zigor jardunbidea iraungitzat ematea eta arau-haustea ez dela preskribatu onartu zuen aho batez.

Ikusirik

- Usurbilgo udaleko udaltzainburuaren 2017ko ekainaren 29ko salaketan adierazten denaren arabera, animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantza, eta 101/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoa, urratu dira. Aipatu idatzian 101/2004 dekretuko 4. artikuluari egiten zaio erreferentzia, zakurren jabearen edo edukitzailearen betebeharren arten gune publikoetan txakurrak kontrolatuta eraman behar direla gogoraraziz, eta ez betetze honek dakarren arau-haustea jasoz. Salaketan agertzen diren datuen arabera arau-hauste eguna 2017ko maiatzaren 30a da eta arau-hauslea berriz JMIM jauna, txakurraren jabea, udaltzainburuak salaketarekin batera gehitu dituen dokumentazioan ikus daitezkeen datuen arabera (ikusi espedienteko dokumentazioa).
- Udaltzainburuak egindako txostenean JMIM jaunaren aurka dagokion zigor espediente irekitzea proposatu du animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantza, eta 101/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoa 4. atala urratzeagatik, hau da, zakurrak kontrolatua ez eramateagatik eta beraien ezaugarrietara egokitutako kate edo uhal bati lotuta ez eramateagatik, aipatu arau-urratzearen sailkapena **larria** izanik.
- 2018ko apirilaren 12ko zinegotzi delegatuaren 2018/0337 dekretu bidez JMIM jaunaren aurkako HZ.08/2018-0174 zigor-jardunbideari hasiera eman zitzaion, prozeduraren instruktore eta idazkaria eta prozedura ebazteko organo eskuduna izendatu, eta alegazioak aurkezteko epea eman eta besteren artean, ustezko erantzuleari jakinarazi, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 64.2.d) artikuluan xedatu denari jarraituta, edozein unetan bere erantzukizuna borondatez aitortzeko. Halakoetan, prozedura ebatziko litzateke dagokion zigorra ezarrita.



Usurbilgo Udala

Arau-hausleak bere erantzukizuna borondatez aitortuko balu ebazpena eman baino lehen, 39/2015 Legearen 85.3. artikulua arabera proposatutako zehapenaren gainean %20ko murriztapena izango luke.

- 2018ko maiatzaren 11an JMIM jaunak erantzukizuna onartu eta zigorra ordaintzeko asmoa agertu du.

IKUSIRIK

Urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legeak honako hau jasotzen du bere 85. artikuluan:

*Zehapen-prozedura bat hasitakoan, arau-hausleak bere erantzukizuna aitortzen badu, **dagokion zehapena ezarriz ebatzi ahal izango da prozedura.***

(...)

Zehapena diruzkoa soilik denean, prozedura ebazteko eskumena duen organoak murriztapenak aplikatuko ditu, gutxienez % 20koak, proposatutako zehapenaren gainean, (...). Haietaz baliatzeko, bestalde, zehapenaren aurka administrazio-bidean jarritako akzio edo errekurtsioetan atzera edo uko egin beharra dago.

JMIM jaunak bere erantzukizuna aitortu duela, eta beraz, dagokion zehapena ezarriz Udalbatza Plenoari bideratzeko ebazpen proposamena egitea dagokiola irizten du instruktore honek.

Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantza (GAO 2011-05-09) 16. artikuluan jasotzen dira bide publikoan txakurrak edukitzean bete beharreko baldintzak; 12. artikuluan jasotzen da bestalde animaliak eraso egiten badu nola jardun. Eta 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, *Kode Zibilaren 1905. artikuluan ezarritakoaren arabera, animaliaaren edukitzaila izango da animaliak sortu ditzan kalte, galera eta arazoaren erantzulea.*

Aurreko xedapenak aintzat harturik eta espedientean aurkitzen den dokumentazioa eta frogak ikusi ondoren, burututako egintza arau-urratze **larria** dela, Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantza (GAO 2011-05-09) 29.2.g) artikulua arabera.

Instruktore honen ustez, **frogatuta** geratu dela aipatutako **arau-urratzea eta erantzulea**, Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 37. artikuluan xedatutako frogaldia ireki beharrik gabe, izan ere Usurbilgo udaleko udaltzainburuaren 2017ko ekainaren 29ko salaketa eta espedienteari gehitu dizkion dokumentuak nahiko frogak direla eta arau-hausleak aurkeztutako idatzian gertaera onartu duela.

Salaketa-egilearen funtzioen artean, 2010/1175 alkatetza dekretuaren bidez onartuak (2014/0274 alkatetza dekretu bidez bere horretan mantentzen direnak), behar izanaren eta zerbitzuaren arabera udaltzain funtzioak betetzea aurkitzen dela, besteak beste, eta hauen artean udal organoek jaulkitako arau, xedapen edo egintzen konplimentuaz arduratu ikuskatze, salaketa eta nahitaezko betearazpen ekintzen bidez: ordenantza,



Usurbilgo Udala

araudi eta udal akordioen betetzearen zainketa. Zentzu berdinean aintzat hartu behar dela martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoaren 53.1 artikulua, Segurtasun Indarreko buruzkoa, izan ere, Udaltzaingoa honako funtzioak bete beharko ditu: ordenantzei, bandoei eta gainontzeko udal xedapenei dagokienez, zaintza administratiboa bere eskumenaren eremuan. Azkenik, Usurbilgo Udaltzaingoa araudiak (GAO 1990-04-12) 1. artikuluan xedatzen du Usurbilgo Udaltzaingoa osatzen dutenei Agintaritzaren Agente izaera aitortzen zaiela. Bestalde, 5. artikulua araberako udaltzainkideek, zerbitzutan dihardutela, Agintaritzaren Agentetzat aitortuko dute beren burua lege-ondorio guztietarako. Eta 3. artikulua baitan, besteak beste, Udaltzaingoa honako eginkizuna dagokio, udalak ematen dituen udal ordenantzak, alkategoaren bandoak, arautegiak eta udal erabaki guztiak zehazki beteak izan daitezzen galdatzea.

Salaketa-egileari Agintaritzaren Agente izaera aitortzen zaiola, ondorioz, bere salaketa frogan nahikoa dela ondorioztatzen dela salatutako pertsonaren errugabetasun-presuntzioa indargabetzeko. Agintaritzaren Agente izaera duten funtzionarioek adierazitako gertakariari Legeak frogan balioa esleitzen diela (39/2015 Legeko 77.5 artikulua). Udaltzainburuaren txostena administrazio-espeditentean sartuta dagoela eta honek frogan gisa balio duela, are gehiago interesatuak aurkeztutako aurkako alegazioetan jasotakoa onartu duenean. Agintaritzaren Agentearen salaketari Legeak nahiko indar esleitzen diola salatutako gertakariak ziurtatzeko eta ondorioz isuna jartzeko ekintza zuzenbidezko hartzen dela.

Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 30.1.b) artikulua arau-urratze larrirentzat ezar daitezkeen **zehapenak** zehazten dituela:

30. artikulua. Zehapenak.

1. Animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearen arabera, animaliak babesteari buruzko arau-haustek honako zenbateko hauek dagozkien isunekin zehatuko dira:

(...)


b) Arau-hauste larrietarako isuna: 300,52 €-tik 1.502,53 €-ra.

(...)

Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 32. artikulua 1 atalak berriz **zehapenak ezartzeko mailaketa** zehazten dituela:

1. Isunen zenbatekoa mailakatzeko eta aurreko artikuluko 3. idatz-zatian aurreikusitako zehapenen iraupena zehazteko, honako inguruabar hauek kontuan izango dira:

- Egindako arau-haustearen transzendentzia soziala eta sanitarioa, eta eragindako kaltea.
- Legez kanpoko irabazi-asmoa agerikoa izatea eta arauhaustetik irabazitakoaren zenbatekoa.
- Arauk hausten segitzea. Zehapen-espeditentea abiarazi aurreko bost urteko epean Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteren bat administrazio



Usurbilgo Udala

bidezko ebazpen irmoz zehapena ezarri bada, arauak hausten segitu dela ulertuko da.

d) Arau-haustearen gaitzespen-mailan eragin dezakeen beste edozein, bai aringarria bai astungarria. Horretarako, bereziki esanguratsua izango da animalien aurka erakutsitako bortxakeria haurren edota adimen-urrituen aurrean egin izana.

Bestalde, kontuan izan behar dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legeak 85. Artikuluan jasotakoak; arau-hausleak bere erantzukizuna du, eta prozedura ebazteko eskumena duen organoak murriztapenak aplikatu beharko ditu, %20koak, proposatutako zehapenaren gainean, beti ere zehapenaren aurka administrazio-bidean jarritako akzio edo errekurtsioetan atzera edo uko egin beharko duelarik arau-hausleak.

Espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, instruktorearen proposamena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

LEHENENGOA: JMIM jaunak Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 29.2.g) artikuluan xedatutako arau-urratze larria burutu du, hau da, kalteak eragin ditzaketen animaliak zaindu eta babesteko beharrezko eginbidea ez izatea, espedientean aurkitzen den dokumentazio eta frogen baitan.

BIGARRENA: JMIM jauna da arau-haustearen erantzulea, Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 6. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeko 8. eta 9. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriaz.

HIRUGARRENA: JMIM jaunari, burututako arau-hauste larria dela eta, Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal Ordenantzaren (GAO 2011-05-09) 30.1.b) atalean aurreikusitako zehapena jartzea, hain zuzen ere, 300,52 euroko isuna ezartzea ordenantza bereko 32. artikuluko 1. atalean xedatutako irizpideak eta espedienteko dokumentazioa kontuan hartuta, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeko 7. eta 14. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriaz.

LAUGARRENA: Zehapen horren gainean, 39/2015 legeak bere 85.artikuluan aurreikusitako %20ko murriztapena ezartzea; beraz, ordaindu beharreko isuna 240,42.-€ izango dira, beti ere zehapenaren aurka administrazio-bidean jarritako akzio edo errekurtsioetan atzera edo uko egin beharko duelarik arau-hausleak."

Bozketa egin da, emaitza honekin:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari



Usurbilgo Udala

Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

6.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN UDAL ARAUTEGIAREN ALDAKETA.

0

6.1.- EMENDAKINA: GEHIKETA-ALDAKETAK EGITEA.

Batzarkideek, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren arautegiaren aldaketari egiten zaizkion gehiketa-aldaketak aho batez onartu dituzte.

“EMENDAKINA

2018ko maiatzaren 16an ospatutako “Osasun eta Gizarte Zerbitzuak” batzordean onartutako Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren arautegiaren aldaketan, **Arrazoi****Azalpena** atalean egin nahi diren gehiketa-aldaketa dira emendakin honen helburua.

Gehiketa: 5. eta 6. paragrafoen tartean ondorengo zatia txertatzea

“Emakume eta gizonen arteko Otsailaren 18ko 4/2005ko berdintasun legean eta emakume eta gizonen berdintasunerako 2/2015eko Foru Arauan, zaintza sistema moldatzeko beharra jasotzen da; gaur egun emakumeek gehienetan lan horiek egiten dituzte eta zaintza-lanen banaketa orekatua izateko behar diren neurriak jarri beharko direla esaten da.

4/2005eko legean 49.Artikuluan hain zuzen Euskal herri-administrazioek zerbitzu eskuragarriak, malguak, kalitatekoak eta erraz lortzekoak ezarri behar dituzte, hain zuzen ere, autonomia funtzional nahikoa ez izatearen ondorioz eguneroko bizitzako jardunerako beren kabuz baliatu ezin diren pertsonen arreta-beharrizanei erantzuteko.

Euskal herri-administrazioek atsedena eskaintzeko programak eta laguntza ekonomiko, tekniko eta psikosoziala emateko beste neurri eta zerbitzu batzuk ezarriko dituzte zaintza-lanak betetzen dituzten pertsonentzat; eta aztertu eta, hala badagokio, bultzatu egingo dituzte norbanakoen artean pertsonak zaintzen elkarri laguntzeko sor daitezkeen ekimenak eta formulak.

Foru Arauari dagokionez, hitzaurrean, hau jasotzen da: “bizitzaren iraunkortasuna bereziki sustatzen duten lanak ikustarazi eta aitortu behar dira, , lan horiek baldintza duin eta unibertsaltasunez eginez”. Hori dela eta, IV. Tituluko, II kapituloan gai hori garatzen da, Unibertsaltasun eta berezitasun irizpideetan oinarriturik pertsona guztien zaintza eskubidea bermatzeko lanetan aurrera egin ahal izateko. “



Usurbilgo Udala

Aldaketa: (azkeneko paragrafotik kontatzen hasita hirugarrengoan):

“Xede hori kontuan eta 12/2008 Legeari jarraituz, Zerbitzuaren inguruan hainbat hobekuntza proposatzen dira zerbitzuan: intentsitate malguagoak, **zerbitzua emateko aukera zehaztea urteko egun guztietan, izaera mugatua**, larrialdietako sarbide mota finkatzea eta profil ezberdinetara sarbidea izatea.” esan beharrea

“Xede hori kontuan eta 12/2008 Legeari jarraituz, Zerbitzuaren inguruan hainbat hobekuntza proposatzen dira zerbitzuan: intentsitate malguagoak, **izaera mugatuarekin zerbitzua emateko aukera zehaztea urteko egun guztietan**, larrialdietako sarbide mota finkatzea eta profil ezberdinetara sarbidea izatea.” esatea.”

Bozketa egin da, emaitza honekin:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

6.2.- ARAUTEGIAREN HASERAKO ONESPENA.

ALKATEA: Orain bai bozkatuko dugu etxez-etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen udal arautegia, hor kontuan hartu gaur hemen, baldin eta aldeko bozkek aterako balira, hasieraz onartzen dugula testu hau eta ondorenean hogeita hamar eguneko epean erakusketa publikoan egongo da, gero erreklamazio edo iradokizunak erantzun beharko dira eta halakorik ez balitz behin betikoz onartuko litzateke.

Batzarkideek, Etxez Etxeko arautegiaren aldaketari egindako gehiketa-aldaketak kontutan hartuta, Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zkia.: GZ.30/2017-0222

1.- AURREKARIAK

Egungo Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren udal-araudiak (GAO 2006/08/24), Gizarte Zerbitzuen 1996ko Legean ezarritakoari jarraiki onartutakoak, egokitzapen bat eskatzen du, azken urteetan legegintzan egin diren garrantzizko aldaketei dagokienez.

Bai Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko **abenduaren 14ko 39/2006 Legea**, bai **Gizarte Zerbitzuei buruzko**



Usurbilgo Udala

abenduaren 5eko 12/2008 Legea onartzeak ondorio nabarmenak izan ditu gizarte zerbitzuen alorrean.

Zehazki, **Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak** erantzukizun soziala duten gizarte-zerbitzuen sistema integratu bat ordenatu eta egituratzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, herritar guztiei gizarte-zerbitzuen euskal sistemako gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubide subjektiboa ziurtatzeko asmoz, prestazio edo zerbitzu bakoitzerako araututa dauden aipatutako sistemara sartzeko baldintza orokorren eta baldintza berezien barruan, eta horretarako:

22. artikuluan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen katalogoa definitzen du; horrek etxez etxeko laguntza zerbitzua barne hartzen du, eta zerbitzu horiek emateko eskumena udalei ematen die.

185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea garatzen duenak, aipatutako eskubide subjektiboa zedarrizten du, Gizarte Zerbitzuen Legearen katalogoan zehazten diren baldintzak, irizpideak eta prestazioetarako eta zerbitzuetarako sarbidea erregulatuz.

2018ko maiatzaren 16an egindako Osasun eta Gizarte Zerbitzuak Batzordean irizpen honen proposamena aho batez onartu zen, Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Irene Gartzia Palacios eta Josune Urkola Larrarte-ren aldeko botoekin.

Honenbestez, Osasun eta Gizarte Zerbitzuak Batzordeak aho batez luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

LEHENA: Etxez Etxeko Laguntza zerbitzua arautzen duen arautegiaren aldaketari haserako onespina ematea, ebazpen proposamen honi eransten zaiolarik.

BIGARRENA: Espedientea erakusketa publikoan jartzea 30 eguneko epean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN dagokion iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, interesdunek bidezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ditzaten.

HIRUGARRENA: Aipatutako epean erreklamazio edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, behin betiko onartutzat joko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikulua xedatutakoarekin bat."

Bozketa egin da, emaitza honekin:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari



Usurbilgo Udala

Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

7.- USURBILGO UDALA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO HITZARMENA, ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO HELBURUAREKIN.

JONE URDANPILLETA: Aipatu dut aurreko gaiarekin lotura zuela. Aipatu Aldundiko Diputatuen Kontseiluak martxoan 20ko bileran etxez-etxe laguntza zerbitzuari buruz Gipuzkoako udalekin sinatutako hitzarmenak bertan behera uztea erabakia hartu zuen eta, ondorioz, udalek hitzarmen berria sinatzeko proposamena jaso zen.

Hitzarmen honetan aurreikusten dira 15 euroko prezioa onartzea eta Udalek aukeran daukaten hobekuntzak jasotzea. Gure kasuan, I eranskinean daukazue zerbitzu bakoitzak ze ponderazio portzentaia jasoko duen. Hemen Usurbilen onartu dugu zerbitzua urteko egun guztietan ematea, 15 eurotan finkatzea Aldundiak proposatzen duen prezio publikoa, zerbitzuaren gehienezko intentsitatea ezartzea lau ordu/eguneko eta urgentziaz sartzeko modalitatea ezartzea. Bosgarren puntuak gaueko zaintzarekin lotura dauka eta orduan hori guk ez dugu aurreikusi. Beraz, portzentai batuketa horien arabera jasoko dugu Aldunditik diru laguntza edo nolabait ere etxez-etxe zerbitzuaren finantzaketa. Honen indarraldia 2019ko iraila arte da eta gaur egungo irizpideak jarraituz ulertzen da Aldundiko finantzaketa eten egingo dela hortik aurrera. Ezinbestean sinatu beharra daukagu eta onartu beharra daukagu, bestela, erabat udalaren gain geldituko den zerbitzu bat izango litzake.

ALKATEA: Nik badaukat galdera bat, justu orain erreparasatzen tarifak eta hor hirugarren puntuan aipatzen diren tarifak dira lehen zeudenak, horiek horrela behar dute?

IDAZKARIA: Zehaztu beharko da sinatzen denerako zer hobekuntza onartu diren.

JONE URDANPILLETA: Eranskinean jartzen ditu hobekuntzak. Udalak egongo dira akaso ez dutenak onartzen.

IDAZKARIA: Aldundiarekin hitz egin da eta Aldundiko zerbitzu juridikoek esan zuten testua ezin zela aldatu.

ALAITZ AIZPURUA: Baina hor kontradikzio bat ikusten da. Oraintxe onartu ditugu prezio maximoak eta orain jasotzen dugu hitzarmenean Diputazioarekin lehengo prezio maximoak.

JONE URDANPILLETA: Baina guk jada onartu dugu hobekuntza hori.

JOSUNE URKOLA: Hobekuntza izango da, nik ulertzen dudanez, hobekuntza hori udalak ordaindu behar duela baina Foru Aldundiak bere prezioa jartzen du.



Usurbilgo Udala

JONE URDANPILLETA: Ez.

ALKATEA: Azkenean, guk herritarrei hori da kobratzen dieguna gehiengoz, hamabost. Aldundiarekin egiten dugun hitzarmenean adosten dugu guk herritarrei hamabost kobratuko diegula. Egia da eranskinean jasotzen dela hori, baina ez ote litzatekeen argiagoa hitzarmenaren testuan bertan hori jasotzea.

IDAZKARIA: Hitz egingo da Aldundiarekin baina bai esaten da baldin eta udalak emandako prezioa tarifa baina txikiagoa bada, horren arabera egingo direla ordainketak etab.

ALAITZ AIZPURUA: Edo behin behintzat onartu ezkerro hobekuntza horiek, hori egitera goazela txertatu edo modifikatu beharko litzateke onarpen hori eman eta gero.

ALKATEA: Garbi geratu dadila, beraz, udalbatza honek erabaki duela 15 euro kobratuko dituela eta ez 18,87, igandeetakoek ere doikuntza bat daukate.

Ikusten bada zerbitzu juridikoetatik hori jasotzea badagoela hitzarmenean, nik uste dut argiagoa dela, besterik gabe.

Batzarkideek, Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zkia.: GZ.44/2018-0235

1.- AURREKARIAK

I.- Eusko Legebiltzarraren 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, erakunde publikoen ardurapeko zerbitzu sozialak sistema integratu batean antolatzen eta egituratzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan zerbitzu horiek hartzeko eskubidea herritar guztiei bermatzeko.

II.- Aipatutako legearen 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua jasotzen da lehen mailako arretako gizarte zerbitzuen barruan, eta udalen eskumenekoa da zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikulua ezarritakoaren arabera.

III.- Nahiz eta, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen arabera, zerbitzu hori eskaintzea udalen eskumenekoa izan, Gipuzkoako udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak adostu dute, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaiaren barruan, Etxeko Laguntza Zerbitzua kofinantzatzea 2017-2019 aldian.

IV.- Kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileentzako arreta hobetzeko, eta eskumen banaketarantz hurbiltzeko xedez, bi administrazioek bidezkotzat jo dute lankidetzak hitzarmen berri bat sinatzea, zerbitzuaren finantziario sistema arautze aldera.



Usurbilgo Udala

V.- Bi administrazioen helburua da Etxeko Laguntza Zerbitzua kofinantzatzen jarraitzea.

VI.- Azaldutakoa aurrera eraman ahal izateko, gaur egun indarrean dagoen Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren arautegia aldatu beharra dago.

2018ko maiatzaren 16an egindako Osasun eta Gizarte Zerbitzuak Batzordean irizpen honen proposamena aho batez onartu zen, Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Irene Gartzia Palacios eta Josune Urkola Larrarte-ren aldeko botoekin.

Honenbestez, Osasun eta Gizarte Zerbitzuak Batzordeak aho batez luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa: Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko Usurbilgo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena onartzea.

Bigarrena: Alkatea ahalmentzea Gipuzkoako Foru Aldundia eta Usurbilgo Udalaren arteko lankidetzeta hitzarmen hau sinatzeko.

Hirugarrena: Gipuzkoako Foru Aldundiari erabaki hauen berri ematea.”

Bozketa egin da, emaitza honekin:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

8- USURBILGO UDALA ETA “ASOCIACIÓN DEL JUBILADO Y PENSIONISTAS ARRATE”REN ARTEKO HITZARMENA.

JONE URDANPILLETA: Herriko hiru jubilatuak elkarteen hitzarmenak sinatzea dakarkigu. Arrate Aginagako jubilatuak elkartea, Gure elkartea Santueneako jubilatuak elkartea eta Gure Pakea kaskoko jubilatuak elkartea. Hitzarmen hauek iaz lau urtekoak ziren, 2014ko apirilean sinatu ziren eta ja iraungita daude, orduan berritzea tokatzen da. Diru laguntzen oinarria mantendu egin da, akaso zehaztu da aldaketa txikiren bat baina ez da aldaketa esanguratsurik. Baina bai gehitu da nolabait ere, udal lokalen lagapena txertatuko da hitzarmenean.

Zalantzaren bat baduzue?



Usurbilgo Udala

Jubilatu elkarteekin landu diren dokumentuak dira eta hauek ados daude.

Batzarkideek, Osasun eta Gizarte Zerbitzuak Batzorde informatzaileen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zkia.: GZ.44/2018-0227

1.- AURREKARIAK

Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2008ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, Udala honek ematen dituen diru-laguntzak arautzeko Ordenantza onartu zuen.

Ordenantza honen III. Kapituluko 2. atalean Hitzartutako diru-laguntzen prozedura zehazten da Usurbilgo Udalak diru-laguntzak emateko duen bideetako bat bezala. Arautegi honen barruan, besteak beste, irabazi asmorik gabeko talde batzuei laguntza hitzartuak emateko asmoa dago, beraiekin hitzarmena sinatu ostean.

Horietako bat ASOCIACION DEL JUBILADO Y PENSIONISTAS “ARRATE” da.

Asociacion del Jubilado y Pensionistas “Arrate”k Aginagako jubilatuerekin lan handia egin du, eta beharrezkoa ikusten da Udala eta Asociacion del Jubilado y Pensionistas “Arrate”-ren arteko harremana hitzarmen batean jasotzea.


Modu honetara, 2014ko apirilaren 9an, Usurbilgo Udalak hitzarmena sinatu zuen Asociacion del Jubilado y Pensionistas “Arrate”rekin lau urteko iraupenarekin.

Orain epe hori amaiturik, hitzarmen berria sinatzeko beharra ikusi da.

Hitzarmen honen helburua da: Asociacion del Jubilado y Pensionistas “Arrate”-rekin diru-laguntza erregimena eta prekarioz lagatuko dion lokalaren erabilpena arautzea da.

Kontuan harturik

- 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 sektore publikoaren kontratu legea.
- Administrazio Publikoetako Kontratuen Erregelamendua (uztailaren 5eko 1098/2001 Dekretua)
- Apirilaren 2ko Toki Korporazietako Oinarri arautzailearen 7/1985 zenbakidun Legea eta apirilaren 18ko erregimen lokaleko arauak biltzen dituen 781/1986 zenbakidun Testu Bateratua, beti ere Kontratu Legean ezarritakoaren aurka ez baldin badao.
- Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Herri Administrazioetako diru-laguntzak arautzen dituena.
- Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen Ordenantza (GAO 2008/07/01)



Usurbilgo Udala

- Usurbilgo Udaleko 2017-2019ko Diru laguntzen Plan Estrategikoa
- Honetaz gain, zuzenbide administratiboko arauak eta bere kasuan zuzenbide pribatu arauak aplikatuko dira.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen berdintasunerakoa
- Udal idazkariaren txostena.

2018ko maiatzaren 16an egindako Osasun eta Gizarte Zerbitzuak Batzordean irizpen honen proposamena aho batez onartu zen, Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Irene Gartzia Palacios eta Josune Urkola Larrarte-ren aldeko botoekin.

Honenbestez, Osasun eta Gizarte Zerbitzua Batzordeak, aho batez, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa: Usurbilgo Udalak eta Asociacion del Jubilado y Pensionistas “Arrate” egoitzak izenpetuko duten hitzarmena onartzea, agiri honi eransten zaiolarik.

Bigarrena: Alkatea ahalmentzea Asociacion del Jubilado y Pensionistas “Arrate” eta Usurbilgo Udalaren arteko lankidetzeta hitzarmen hau sinatzeko.

Hirugarrena: Hitzarmenaren iraupena lau urtekoa izango da.

Laugarrena: Hitzarmen honen indarraldia, hitzarmena sinatu eta hurrengo egunean hasiko da.

Bosgarrena: Usurbilgo Udalak urtero, aurrekontu partidan hitzarmen honi aurre egiteko adinako dirua jartzeko konpromisoa hartzen du.”


Bozketa egin da, emaitza honekin:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

9.- USURBILGO UDALA ETA “ASOCIACIÓN DEL JUBILADO Y PENSIONISTAS GURE ELKARTEA”REN ARTEKO HITZARMENA.

Batzarkideek, Osasun eta Gizarte Zerbitzuak Batzorde informatzailaren irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:



Usurbilgo Udala

“Esp. Zkia.: GZ.44/2018-0226

1.- AURREKARIAK

Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2008ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, Udal honek ematen dituen diru-laguntzak arautzeko Ordenantza onartu zuen.

Ordenantza honen III. Kapituluko 2. atalean Hitzartutako diru-laguntzen prozedura zehazten da Usurbilgo Udalak diru-laguntzak emateko duen bideetako bat bezala. Arautegi honen barruan, besteak beste, irabazi asmorik gabeko talde batzuei laguntza hitzartuak emateko asmoa dago, beraiekin hitzarmena sinatu ostean.

Horietako bat ASOCIACION DEL JUBILADO Y PENSIONISTAS “GURE ELKARTEA” da.

Asociacion del Jubilado y Pensionistas “Gure Elkartea”k Santu-eneako jubilatuekin lan handia egin du, eta beharrezkoa ikusten da Udala eta Asociacion del Jubilado y Pensionistas “Gure Elkartea”-ren arteko harremana hitzarmen batean jasotzea.


Modu honetara, 2014ko apirilaren 9an, Usurbilgo Udalak hitzarmena sinatu zuen Asociacion del Jubilado y Pensionistas “Gure Elkartea”rekin lau urteko iraupenarekin.

Orain epe hori amaiturik, hitzarmen berria sinatzeko beharra ikusi da.

Hitzarmen honen helburua da: Asociacion del Jubilado y Pensionistas “Gure Elkartea”-rekin diru-laguntza erregimena eta prekarioz lagatuko dion lokalaren erabilpena arautzea da.

Kontuan harturik

- 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 sektore publikoaren kontratu legea.
- Administrazio Publikoetako Kontratuen Erregelamendua (uztailaren 5eko 1098/2001 Dekretua)
- Apirilaren 2ko Toki Korporazietako Oinarri arautzailearen 7/1985 zenbakidun Legea eta apirilaren 18ko erregimen lokaleko arauak biltzen dituen 781/1986 zenbakidun Testu Bateratua, beti ere Kontratu Legean ezarritakoaren aurka ez baldin badao.
- Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Herri Administrazioetako diru-laguntzak arautzen dituena.
- Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen Ordenantza (GAO 2008/07/01)
- Usurbilgo Udaleko 2017-2019ko Diru laguntzen Plan Estrategikoa
- Honetaz gain, zuzenbide administratiboko arauak eta bere kasuan zuzenbide pribatu arauak aplikatuko dira.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen berdintasunerakoa
- Udal idazkariaren txostena.



Usurbilgo Udala

2018ko maiatzaren 16an egindako Osasun eta Gizarte Zerbitzuak Batzordean irizpen honen proposamena aho batez onartu zen, Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Irene Gartzia Palacios eta Josune Urkola Larrarte-ren aldeko botoekin.

Honenbestez, Osasun eta Gizarte Zerbitzua Batzordeak, aho batez, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa: Usurbilgo Udalak eta Asociacion del Jubilado y Pensionistas “Gure Elkarte” egoitzak izenpetuko duten hitzarmena onartzea, agiri honi eransten zaiolarik.

Bigarrena: Alkatea ahalmentzea Asociacion del Jubilado y Pensionistas “Gure Elkarte” eta Usurbilgo Udalaren arteko lankidetzeta hitzarmen hau sinatzeko.

Hirugarrena: Hitzarmenaren iraupena lau urtekoa izango da.

Laugarrena: Hitzarmen honen indarraldia, hitzarmena sinatu eta hurrengo egunean hasiko da.

Bosgarrena: Usurbilgo Udalak urtero, aurrekontu partidari hitzarmen honi aurre egiteko adinako dirua jartzeko konpromisoa hartzen du.

Seigarrena: Hitzarmenaren berri interesatuari, udal-ondare arduradunari eta kontu-hartzaileari emango zaio.”

Bozketa egin da, emaitza honekin:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.


Beraz, erabakia aho batez hartu da.

10.- USURBILGO UDALA ETA “ASOCIACIÓN HOGAR DEL JUBILADO Y PENSIONISTAS GURE PAKEA”REN ARTEKO HITZARMENA.

Batzarkideek, Osasun eta Gizarte Zerbitzuak Batzorde informatzailaren irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zkia.: GZ.44/2018-0225

1.- AURREKARIAK



Usurbilgo Udala

Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2008ko martxoaren 25ean egindako bilkuran, Udal honek ematen dituen diru-laguntzak arautzeko Ordenantza onartu zuen.

Ordenantza honen III. Kapituluko 2. atalean Hitzartutako diru-laguntzen prozedura zehazten da Usurbilgo Udalak diru-laguntzak emateko duen bideetako bat bezala. Arautegi honen barruan, besteak beste, irabazi asmorik gabeko talde batzuei laguntza hitzartuak emateko asmoa dago, beraiekin hitzarmena sinatu ostean.

Horietako bat ASOCIACION HOGAR DEL JUBILADO Y PENSIONISTAS “GURE PAKEA” Elkarte da.

Asociacion Hogar del Jubilado y Pensionista “Gure Pakea”k herriko jubilatuekin lan handia egin du, eta beharrezkoa ikusten da Udala eta Asociacion Hogar del Jubilado y Pensionistas “Gure Pakea”-ren arteko harremana hitzarmen batean jasotzea.

Modu honetara, 2014ko apirilaren 9an, Usurbilgo Udalak hitzarmena sinatu zuen Asociacion Hogar del Jubilado y Pensionistas “Gure Pakea”rekin lau urteko iraupenarekin.

Orain epe hori amaiturik, hitzarmen berria sinatzeko beharra ikusi da.

Hitzarmen honen helburua da: Asociacion Hogar del Jubilado y Pensionistas “Gure Pakea” -rekin diru-laguntza-erregimena eta prekarioz lagatuko dion lokalaren erabilpena arautzea da.

Kontuan harturik

- 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 sektore publikoaren kontratu legea.
- Administrazio Publikoetako Kontratuen Erregelamendua (uztailaren 5eko 1098/2001 Dekretua)
- Apirilaren 2ko Toki Korporazietako Oinarri arautzailearen 7/1985 zenbakidun Legea eta apirilaren 18ko erregimen lokaleko arauak biltzen dituen 781/1986 zenbakidun Testu Bateratua, beti ere Kontratu Legean ezarritakoaren aurka ez baldin badao.
- Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Herri Administrazioetako diru-laguntzak arautzen dituena.
- Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen Ordenantza (GAO 2008/07/01)
- Usurbilgo Udaleko 2017-2019ko Diru laguntzen Plan Estrategikoa
- Honetaz gain, zuzenbide administratiboko arauak eta bere kasuan zuzenbide pribatu arauak aplikatuko dira.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen berdintasunereakoa
- Udal idazkariaren txostena.



Usurbilgo Udala

2018ko maiatzaren 16an egindako Osasun eta Gizarte Zerbitzuak Batzordean irizpen honen proposamena aho batez onartu zen, Jone Urdanpilleta Urdanpilleta, Irene Gartzia Palacios eta Josune Urkola Larrarte-ren aldeko botoekin.

Honenbestez, Osasun eta Gizarte Zerbitzua Batzordeak, aho batez, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa: Usurbilgo Udalak eta Asociacion Hogar del Jubilado y Pensionistas “Gure Pakea” egoitzak izenpetuko duten hitzarmena onartzea, agiri honi eranstean zaiolarik.

Bigarrena: Hitzarmenaren iraupena lau urtekoa izango da.

Hirugarrena: Hitzarmen honen indarraldia, hitzarmena sinatu eta hurrengo egunean hasiko da.

Laugarrena: Usurbilgo Udalak urtero, aurrekontu partidari hitzarmen honi aurre egiteko adinako dirua jartzeko konpromisoa hartzen du.

Bosgarrena: Hitzarmenaren berri interesatuari, udal-ondare arduradunari eta kontu-hartzaileari emango zaio.”

Bozketa egin da, emaitza honekin:


Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

11.- “HARRERA TALDEA” ELKARTE ASISTENTZIALARI LOKAL BATEN LAGAPENA EGITEA.

ALKATEA: Gogoan izango duzue elkarte honi ja duela bi urte, 2016ko ekainaren 28an, laga zitzaioela prekarioz AEKko bulego bat. Orduan onartu zen erabakian proposatzen zen urtebete gehi beste urte bat epealdirako egitea lagapena, beraz, denera bi urtekoa. Ja bi urte horiek bete dira eta orain proposamena da lokala berriz ere lagatzea lau urteko epealdirako.

Gogoratzea merezi du zer den harrera taldea. Harrera taldea da elkarte bat preso eta iheslari horiei laguntza eskaintzen diena, beraiek esaten dute batez ere lantzen dituzten arloak direla asistentzia psikologikoa, nolabait preso edo ihesean ibilitako



Usurbilgo Udala

jendeari gizarteratzeko laguntza, bestetik, lana topatzeko laguntza ere eskaintzen zaie eta baita ere esan dezagun laguntza papeleoak direla, azkenean gestiorako laguntza eta abar.

Prentsa bidez ere irakurri izan dugu nolako lana egiten duten, elkarrizketak ere komunikabideetan agertu dira. Dirudenez presoek biziki eskertzen dute horrelako elkarte batek laguntza hori eskaini izana. Gogoan daukat gainera aurkeztu genuenean gaia, orduan Zarautzen proposamena onartuta zegoela, artean lokalik ez zegoela, kontua da oraindik hura ez dela mugitu eta, beraz, gure proposamena da Usurbilgo areto hori berriz ere uztea. Beraz, erabakia izango litzateke irizpenean jasota dagoen bezala, seigarren bulego hori lagatzea, iraupena lau urtekoa hemendik kontaktzen hasita, horren berri ematea interesatuei, AEKri eta udal ondare arduradunari.

Ez dakit galderarik baduzuen?

Batzarkideek, Antolakuntza batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: ID.19/2018-0237

Ikusirik

2016ko ekainaren 28an egindako ohiko bilkuran, Usurbilgo Udalbatzarrak, “Harrera Taldea”-ri prekarioz Kale Nagusia 43an kokatutako bulego baten (6. bulegoa) lagapena egitea onartu zuen, iraupena urtebetekoa eta beste urtebetez luzagarria zena. Beraz, lagapena 2018ko ekainaren 28a artekoa da.

Orain, 2018ko apirilaren 26 datarekin, bulego baten eskaera berri bat luzatu dio “Harrera Taldea”k udal honi.

Usurbilgo Udalak Kale Nagusia 43an Euskaraz Kooperatiba Elkarteak 2015eko azaroaren 24an Ohiko Osoko Bilkuran egindako prekariozko lagapenaren baitan darabilen lokalean bulegotako bat libre dago. Dagokion espedientean jasotako ondasun higigarrien inbentarioaren arabera, bulego horretan ez dago Udal jabetzako ondasunik.

Era berean, “Harrera Taldea” elkarte asistentziala elkarteen udal erregistroan inskribatuta dago.

Bestalde, Udal Idazkariak prekariozko lagapena egiteko prozedurari buruzko txostena eman du.

Kontuan harturik

- Udal jabegoko ondasunen izaera juridikoari dagokionez:



Usurbilgo Udala

- Toki-Jaurbidea arautzen duen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea; Toki Entitateen Ondasunak arautzen dituen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua
- Ondare-izaerako ondasunen erabileraren doako lagapena:
 - Toki Entitateen Ondasunak arautzen dituen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua; apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, Herri Administrazioetako Ondarea arautzen duen azaroaren 3ko 33/2003 Legea
- Usurbilgo Udaleko irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroari buruzko ordenantza (GAO 2005-08-18)

2018ko maiatzaren 21ean egindako Antolakuntza Batzordean ebazpen-proposamen honen bozketak emaitza hau izan zuen, aldeko botoak: Xabier Arregi, Alaitz Aizpurua, Jone Urdanpilleta eta Josune Urkola.

Honenbestez, Antolakuntza Batzordearen irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

Lehenengoa: Usurbilgo Udalak "Harrera Taldea"ri prekarioz Kale Nagusia 43an kokatutako bulego baten (6.bulegoa) lagapena onartzea.

Bigarrena: Prekariozko lagapenaren iraupena 4 urtetakoa izango da, 2018ko ekainaren 29ko datatik aurrera.

Hirugarrena: Hitzarmenaren berri interesatuari, Euskaraz Kooperatiba elkarteari (AEK) eta udal-ondare arduradunari emango zaio."

Bozketa egin da, emaitza honekin:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

12.- MOZIOA: HOBEBI, HONDAKINEN KUDEAKETA HOBETZEKO EUSKAL HERRIKO TOKI-ERAKUNDEEN ELKARTEAREN PRINTZIBIOEKIN BAT EGITEA.

ALKATEA: Proposamen hau aurrekoa bezalaxe Antolakuntza batzordetik dator. Hobeki da elkarte sortu berri bat eta pasa zaizuen dokumentazioan azaltzen da pixka bat zer asmo eta zer helburu dituen elkarteak eta ze printzipio.



Usurbilgo Udala

Hondakinen kudeaketarekin arduratuta gauden herriak eta nik uste zorionez, gero eta herri gehiago garelara, eta ez bakarrik Gipuzkoan, esango nuke Euskal Herri osoan gai honek arduratzen gaituela, eta modu batera edo bestera aurrera egiten ari garelara kontu honetan.

Ikusi da askotan inizatiba lokalak egiten dira baina batzuetan elkarren berririk ere ez daukagula eta antzeko kezkak eta antzeko soluzio bideak topatzen dituzten herriek ere ez dutela elkarren berririk izaten. Orduan, gure artean izandako bilera, elkarrizketa etab.etan ikusi izan dugu ze garrantzitsua den bide bat edo ikuskera bat partekatzen dugun herriok batera lan egitea besterik gabe, eskumen kontuetan sartu gabe, jakitun gara nork dituen eskumenak eta bai udal eta mankomunitateek zer lan egiten duten, horretan sartu gabe proposatzen dena da elkarrekin lan egitea, esperientzia trukatzeko batez ere, eta ahal den neurrian elkarrengandik ikasteko.

Usurbilek uste dut bide bat egin duela eta egiten ari dela hondakinen kudeaketan eta azkenean oso egoki eta Usurbilen estilokoak direla dekalogoan proposatzen diren hamar puntu horiek, azken batean, hondakinen kudeaketa jasangarri eta ekonomia zirkularraren bidetik doazelako eta Europako direktibak markatzen dutenaren ildotik.

Beraz, udalbatzar honi egiten zaion proposamena da, batetik, elkartearen printzipioarekin bat egitea, bestetik, printzipio horiekin koherentziaz edo horien arabera aritzea eta jarrera aktiboz hondakinen kudeaketaren arloan, eta gaur hemen erabakitzen dugunaren berri Hobeki elkarteari ematea.


Ez dakit galderarik edo baduzuen?

JOSUNE URKOLA: Bai. Batzordean ez nuen aipatu gaia lantzeko denborarik ez nuelako izan, baina guk uste dugu holako beste elkarte baten beharrik ez dagoela, informazioa beste herriekin partekatzea eta ondo ikusten dugu, baina ez dugu ikusten elkarte beharrik dagoenik.

Baita ere esan Gipuzkoarroi baliabideak jartzen bazaizkigu zaborren bilketa kontuan, adibidez edukiontzia jarri izan diren herrietan emaitzak urtetik urtera hobeak badirela gaikako bilketan. Baita ere esan atez-ateko sistematik edukiontzien sistemara aldatu diren herrietan emaitzak urtetik urtera ere hobeak izan dira gaikako bilketan eta, baita ere, ekonomikoki jasangarria da eta da jasangarriagoa atez-ateko bilketa baino, aurrezpen inportanteekin.

Printzipioetan baita ere azaltzen da, beste batzuen artean, gizalegez jokatzeko eta erabakietan parte hartzeko aukera ematea, bi horiek azpimarratzen ditut. Teorian horrela da baina errealitatea uste dugu beste bat dela. Elkarte osatu dute lau herrien artean, eta dira Leintz-Gatzaga, San Millan, Larrabetzu eta Hernani. Kasu honetan Hernani aipatuko dut zeren Hernanin behin eta berriz ukatu izan zaie bilketa sistema nolakoa izango den kontsulta egitea eta ez dakit, hemen printzipioetan bi gauza horiek azpimarratzen dira baina gero errealitatea beste bat dela ikusten dugu.

Baita ere hau esango dut, Xabier, zuk aipatu zenuelako batzordean ez zela Bilduren aldeko elkarte bat baizik eta beste kolore batzuk ere bazituela eta bakar bakarrik esan



Usurbilgo Udala

San Millan, Larrabetzu eta Hernani direla Bilduk gehiengo osoa duten Udalak eta Leintz-Gatzaga berriz da independentea, ez da EAJkoa, eta mankomunitatean bozka eman behar zuen garaian Bilduri eman zion. Hau bakarrik aipatzen dut, Xabier, aipamen hori egin zenuelako zuk eta Leintz-Gatzaga ez da EAJko Udala, baizik eta da independentea.

Kontua da iruditzen zaigula ez dagola halako elkarte baten beharrik eta kontra botako dugula.

FERMIN ORUE-ECHEVARRIA: Ez nintzan batzordean izan. Jardun naiz biltzen informazioa honen gainean eta ez dut ezer bilatu orain arte. Lehenengo galdera da, ja erantzuna jaso badut ere, zeintzuk dira elkarte osatzen dutenak.

Elkarte hau lege osatuta dago?

ALKATEA: Nik badakit eta lasai jakinarazi didate tramitazio guztiak eginak daudela.


FERMIN ORUE-ECHEVARRIA: Eta ze entitateekin daukate esperientzia lana egiten? Lau udal horiekin bakarrik eta norbait gehiagorekin?

ALKATEA: Nik dakidanaren arabera elkarte sortu berria da, momentu honetan ibilbide edo esperientziarik ez dago, hasi berri berriak dira.

FERMIN ORUE-ECHEVARRIA: Horretaz aparte, hondakinen kudeaketa udalek daukate transferituta mankomunitateari orain arte eta hondakinak ezabatzea egiten du GHK-k. GHK osatzen dute mankomunitateek eta Aldundiak. Udalaren prestakuntzak egiteko Foru Aldundiak dauka baimena. Murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea, hori ondo iruditzen zait, baina gero geratzen da gainerako frakzioa, "*fracción resto*" esaten dena. Horrekin bi aukera bakarrik dauzkagu, zabortegira eraman edo energia bihurtu. Europako nazio aurreratuenak direnak bigarrenengo aukera egingo dute, "*fracción resto*" hori energia bihurtu. Gipuzkoan hori egongo da baita ere. Horrekin aurreztuko da orain arteko gastuekin alderatuta asko, egingo dira energia bihurtu, 45.000 etxetarako aurten energia bidali eta aurreztuko da 220.000 euro urtean, baita ere.

Orduan, Hobeki honekin ez dakit ze aukera gehiago daukaten, baina dauzkadan datuekin eta ez dauzkatenekin garbi daukat, aurka bozkatuko dut.

ALKATEA: Hasteko ni ez naiz sartu ez atez ateko sistemarekin ez besterekin, esan nahi dut, zerbait baldin bada elkarte hau eta nik batzordean esan nuen, elkarte honen bokazioa, nahia dela elkarte zabal bat izatea, irekia izatea. Beraz, ez nuen esan inondik ere Leintz-Gatzaga EAJko udala denik, independente izateak ematen dio gutxienez beste kolore bat, EH Bildukoa ez dena. Ez dakigu eta horregatik nahi nuke, edo niri behintzat egokia irudituko litzaidake, elkarte honek kolore edo etiketa politiko eta geografikoki ere bestelako herriak barneratzea, iruditzen zaidalako badaudela eginkizun asko egin litezkeenak horrelako elkarte baten barruan, sartu gabe herri batek zer aukera egiten duen bere bilketa sistemarako, hortatik aparte.



Usurbilgo Udala

Hondakinen kudeaketa hartzen badugu zentzu integralean, lehendabizi hitz egin behar dugu zer egin behar den hondakinik ahalik eta gutxien sortzeko, eta hor ere badaude inizatiba batzuk oso interesgarriak izan litezkeenak eta herri askotan aplikatu litezkeenak. Gainera badaude tipologia desberdineko herriak, adibidez, nekazal herrietan egin litezkeen gauzak edo herri urbanoetan edo hirietan egin litezkeenak desberdinak dira eta horrelako elkarteak nolabait esperientzia trukatzeko eta elkar aberasteko aukera ematen du. Hori adibide bat baino ez da, esan nahi dut, dena ez da hondakinak nola hala bildu eta tratamendu finalista batera eramatea, bidean gauza asko daude, esperientzia asko daude, zuk esan duzun Europa aurreratu horretan 10.0000 gauza egiten dira oso interesgarriak eta iruditzen zait horrelako elkarte batek beti daukala zer aportatua.

Ikusi besterik ez dago, gainera, hondakinen kudeaketan gaur egunean ere indarrean badaude beste elkarte batzuk, "Composta en red" hor dago adibidez, estatu mailako hedapena daukan elkarte bat eta guri tokatu izan zaigu beraiek eskatuta parte hartzea elkarte horren aktibitateetan. Hor elkartzen dira herriak eta mankomunitateak esperientziak trukatzera eta egiten dira halako aurkezpenak, esperientzia positiboak eta abar. Fiskalitatean beste horrenbeste, guri jende askok eskatzen digu informazioa Usurbilen nola egiten ditugun gauzak, beraien herrietan aplikatu nahi dituztelako. Zergatik ez dugu guk horrelako elkarte baten bidez parte hartuko foro horietan eta zergatik ez ditugu beraiekin partekatuko esperientziak?

Esan nahi dut, zoritxarrez, eta ez naiz ni izan, hondakinei buruz hitz egiten dugunean beti erortzen gara alderdien logikan. Konturatzen bazarete nik ez dut inongo momentutan alderdirik aipatu, zuek aipatu dituzue alderdiak eta justu esaten ari gara logika horretatik aparte gauza asko egin litezkeela eta komeni dela kentzea dauzkagun prejuizio horiek eta beste modu batera gauzak egiten hastea.

10.000 adibide daude, gaur egunean ze aukera ditugu adibidez pardelak tratatzeko, ba Gipuzkoan badago talde bat horretan ari dena, enpresa bat sortzeko nahian gurekin harremanetan daudenak, iruditzen zaigu oso esperientzia interesgarria izan daitekeela eta gainera praktikara eraman daitekeena. Gu ere herrian beste inizatiba batzuk aurrera eramaten ari gara momentu honetan konpostak etab. lantzeko eta iruditzen zaigu beste herriek ere erabili dezaketela guk ikasitakoa eta guk ere nahi dugu besteengandik ikasi baita ere.

Orduan, berriz ere lehengora bueltatuz, Hobeki elkartearen bokazioa ez da EH Bilduren elkarte bat egitea, baizik eta elkarte ahalik eta zabalena egitea. Bigarrenik, atez atekoa bai edo ez, ez dugu horretan sartu nahi, bakoitzak ikusi dezala nola egin nahi dituen gauzak, bakarrik parentesi artean esango dut, ez dela egia atez ateko bilketatik edukiontzien sistemara pasa direnek emaitzak hobetu dituztenik, ez behintzat kasu guztietan, Pasaiaiko adibidea hor dago, gure mankomunitatekoa eta emaitzak nabarmen okerragoak dira.

Besteak beste, iruditzen zaigu lana egin beharra dagoela baita ere egiten den lanaren kuantifikazioan, gaur egunean oso ohikoa da esatea %70eko bilketa egiten dugu gaikakoa eta gero ez diogu inongo kasurik egiten esate baterako jasotzen den horren kalitateari edo baita ere zenbat kilo jasotzen diren, nola jasotzen diren. Hor gauza asko



Usurbilgo Udala

daude egiteko eta iruditzen zaigu dinamika horiek, elkarlan horrek horretan lagundu dezakeela.

Nire asmoa ez da polemizatzea, ez atez ateko bilketarekin eta ezta ere erraustegiaren onurekin, asko neukake esateko, asko Fermin, niretzat gezur hutsa da esatea momentu honetan erraustegiak energia sortzen duela, zeren energia sortzeko eta hori Europako erakundeek hala diote, baldintza batzuk bete behar dira, baldintza horien artean lehenengo eta behin egiten da kalkulu bat jakiteko zenbat energia pasatzen zaion traste horri, gero horren onurak zein diren eta horren kalteak zein diren. Kasu honetan esango dizut Zubietako erraustegiak ez lituzkeela beteko Europako erakundeek ezartzen dituzten baldintza homologatuak holako traste bat energetikoki positiboa dela esateko. Zeren kontuan hartu su hori elikatu egiten dela eta gaur egunean Usurbilgo, entzun ondo, Usurbilgo errefusarekin elikatu behar balitz, hitz ematen dizut, hori ez litzatekeela eraginkorra izango inondik ere, badakizu zergatik? Ba guk sortzen dugun errefusa energetikoki ez delako inondik ere errentablea. Beste herriek egin dezakete guk bezalaxe eta hori azkenean osasunari eta ingurumenari kalte egiten dion azpiegiturarik beharrezko ez izatea.

Gure errefusarekin gasa beharko litzateke eta sortzen den energiak ez luke inondik ere justifikatuko horrelako traste bat martxan edukitzea eta gu bezala badaude beste herri asko Gipuzkoan, ez gara bakarrak.

Beste zerbait?

ALAITZ AIZPURUA: Nik bakarrik beste gauza bat. Josunek aipatu du, Hernani aipatu duzu seguraski kasualitatez, Hernanin askotan eskatu dela galdeketa egitea. Nik dakidala galdeketa oso gutxi egin dira atez atekoa edo edukiontziekin egiteko, uste dut herri asko daudela ez dutela galdetu ez atez ateko edo ez ontziak ere jartzeko aukera. Are gehiago, erraustegiaren kontuan ere ez dut uste, guri ez ziguten utzi, guk, herri honek eskatu zuen galdeketa bat egitea eta ez ziguten utzi. Orduan, uste dut zuk egin duzun galdera horrek beste aldea ere askoz zabalagoa baduela.

JOSUNE URKOLA: Nik Hernani aipatu dut justu hemen elkarte honetako kide delako eta nik esan dudana, galdeketa egiteko eskaera egin dute, firmak bildu dituzte eta ez zaie utzi horiei ere. Alde batekoei gaizki ikusten dugu baina beste aldean ere badira horrelakoak.

Xabier, esan duzunean emaitzak ez dira hobeak, nik esan dudana da emaitzak urtez urte hobeak direla, nik ez dut esan aldaketa egin den herrietan atez atekoa baino emaitza hobeak direnik, baina urtez urte bai dira hobeak.

ALAITZ AIZPURUA: Onargarria egiten zaizue demostratu denean sistema batek, berdin zait ze sistemak, emaitza batzuk lortu ditzakeela herri batek sistema batekin, aldaketa justifikatua dago gaikako bilketa horiek erdira jaisten direnean?

JOSUNE URKOLA: Denborarekin nik uste demostratzen ari dela hobera doala eta aldaketa egin den herri horietan galdetuta egin da. Nik uste dut aldaketa egin den herri guztietan galdetu dela.



Usurbilgo Udala

ALAITZ AIZPURUA: Niretzat gauza batzuk, galdetuko bagenu ea autopistetan 200 km/orduko joatea badagoen, igual baiezkoa aterako litzake, baina ezin da onartu zeren horrek segurtasuna eta gauza asko arriskuan jartzen ditu. Orduan uste dut demostratuta dagonean, herri batek demostratu duenean gauzak hobeto egin litezkeela berdin zait ze sistemarekin, ez dena da onargarria gauzak okerrago egitea, nahiz eta hamar urtean, hogeit hamar urtean edo berrogeita hamar urtean helburu horretara lortzera joan. Uste dut demostratu denean herri batek egin dezakeela, ez beste herri batek, herri horrek egin dezakeela egiten duena, sistema aldatu nahi baldin baduzu aldatu, baina emaitza horiek erdira jaistea nik uste dut onartezina dela.

JOSUNE URKOLA: Hemen gauza batzuk ez ditugunean onartzen inposaketa hitza erabiltzen dugu batzuentzako eta beste batzuentzako ez, baina bueno ez naiz sartuko.

JOSE MARI IRIBAR: Tolosaldean ez zen galdeketa egin eta aldaketa bat egon zen sisteman. Eta horrela asko daukazu.

JOSUNE URKOLA: Askok horrela?

JOSE MARI IRIBAR: Galdeketa oso gutxi egin dira bosgarren kontenedorea jartzeko.

JOSUNE URKOLA: Tolosakoa ez dakit baina aldaketa egin den lekuetan, hau da, lehen atez atekoa zegoenetik edukiontzira aldatu den herrietan nik uste dut galdeketa egin dela.

JOSE MARI IRIBAR: Tolosaren kasuan PNVrekin hitzartu zen EH Bildu udalean zegoenean sistema bat txiparekin bost kontenedoreena, portaleko kontenedoreekin. PNV alkatetzara iritsi zenean sistema aldatu zuen inorekin konsensuatu gabe.

JOSUNE URKOLA: Bale, horrela izango da, ez dakit Tolosako kasua nola izan den. Nik egin dudana alderaketa da atez atekotik edukiontzietara.

Baina beno, Xabier, beste kontu bat, esan duzu alderdiak ez dituzula aipatu, nik bakar bakarrik alderdiak aipatu ditut batzordean puntualizazio bat egin zenuen eta horri erantzuteko bakarrik.

ALKATEA: Beharbada batzordeko puntualizazioa ez zitzaidan ondo ulertu, justu esan nuen hain zuzen ere hori, alderdien logikatik kanpoko elkarte izateko bokazioa zeukala.

Beraz, besterik ez bada bozkatzera pasako gara.

“Esp.zk.: ID.13/2018-0241

2018ko maiatzaren 21ean izandako Antolakuntza Batzordean **“Hobeki, hondakinen kudeaketa hobetzeko Euskal Herriko toki-erakundeen elkartearen printzipioekin bat egitea”** mozioa aztertu zen.



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, gehiengoz (aldeko botoak: Xabier Arregi, Alaitz Aizpurua, Jone Urdanpilleta; abstentzioa: Josune Urkola) onartu zuten mozioa eta Udalbatzarrari proposatu zioten bere egitea.

Antolakuntza batzordearen proposamena ikusita, Udalbatzarrak gehiengoz onartu du honako mozioa:

“HOBEGI”, HONDAKINEN KUDEAKETA HOBETZEKO EUSKAL HERRIKO TOKI-ERAKUNDEEN ELKARTEAREN PRINTZIBIOEKIN BAT EGITEA

Hondakinen erabilera gure bizimoduaren isla da. Kontsumo-ohiturak, pertsonok gizarte-antolaketan dugun tokia, naturarekin dugun harremana, garapena ulertzeko modua... horiek denak agerian geratzen dira hondakinen kudeaketari erreparatuz gero. Eta, herritarren bizimoldeak ez ezik, erakunde publikoen jokabideak ere nabarmen azaltzen dira.

Azken urteotan bilakaera esanguratsua gertatu da Euskal Herrian. Gaiaren garrantziaz jabetu, eta gaur egun inork gutxik jartzen du zalantzan modu egokian kudeatu behar direla hondakinak. Herritarrok nahiz herri-erakundeok arduraz eta erantzukizunez jokatzera behartuta gaude.

Gauzak horrela, toki-erakunde askok urteak daramatzagu esperientzia desberdinak jorratzen. Lan honetan, ordea, elkarren arteko komunikazioa eta esperientzia- nahiz iritzi-trukaketa ez da behar bestekoa. Hutsune hori betetzeko asmoz, HOBEGI elkarte eratu da, bere bitartez toki-erakundeek egiten dutena beste toki-erakundeen ezagupenera iritsi dadin, eta ondorio zuzeneko ekimenak guztien artean partekatuak izan daitezten. Elkarlana eta koordinazioa helburu dituen elkarte izango da, betiere kontuan hartuta hondakinen kudeaketa eta horren inguruko egikaritzapenak udalen esku daudela.

Hori horrela, Udalbatzarrak erabaki du:

1. HOBEGI elkartearen printzipioen dekalogoarekin (eranskin gisa aurkezten dena) bat egitea.
2. Printzipio horien arabera aritzea, koherentziaz eta jarrera aktiboz, hondakinen kudeaketaren arloan.
3. Erabaki honen berri HOBEGI elkarteari ematea.”

Bozketa egin da, emaitza honekin:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.



Usurbilgo Udala

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, mozioa gehiengoz onartu da.

Gai-zerrendatik kanpo:

HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-29 (ZELAI HANDI) EREMUKO XEHETASUN AZTERKETA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.

ALKATEA: Gai-zerrendan ez dagoen puntu bat tratatzea eskatu nahi dizuet.


UCINen xehetasun azterketaren onarpena da. Hirigintza batzorde bat egin zen gai honekin. Ez dakit zein ordezkari izan zintan, ni ez baintzen bertan. Batzordean esan zen xehetasun azterketa honen aldeko iritzi teknikoa emana zuela hirigintza sail buruak, Jone Minerrek konkretuki, baina dokumentu bat falta zela. Badakizue UCINen xehetasun azterketak harrapatzen duen eremua inundagarria da eta horrek eskatzen zuen xehetasun azterketa honen behin betiko onarpena eman aurretik Uraren agiri bat iristea baimena eman. Orduan espero zen hirigintza batzordea baino lehen agiri hori iristea, esan baitzitzaigun ja adostasuna bazegoela, ez zen agiria iritsi, beraz, ezin izan zen batzordean bozkatu. Ondorenean plenorako gai-zerrenda pasa genuenean artean ez zegoen baimenik, beraz, ezin izan genuen ere gai-zerrendan inkorporatu. Uraren agiria iritsi da, baina iritsi da oker ez banago atzo. Beraz, nola ja agiria hemen dagoen eta nola beste guztia, agiria izan ezik, ja tratatuta daukagun, batzordean ere hitz eginda daukagun, nire proposamena da UCINen xehetasun azterketa hau gaur hemen tratatzea. Beraz, gai berri bat gehituko genioke gai-zerrendari.

Hasteko, batzarkideek, puntu hau gai-zerrendan sartzea erabaki dute aho batez.

ALKATEA: Gaia hirigintza batzordean aipatu zen, gainera ez da gai berria, lehendik datorren gaia da. Gaur egitera goazena da behin betikoz onartzea, hasierako onarpena 2016tik datorren kontua da. Aipatu nahi nuke bakarrik zein den xehetasun azterketa honen azken helburua.

Bere garaian UCINek azaldu zion udalari nahi bat eta nahi hori da gaur egunean kamioietan ekartzen den txatarra pilatzen da libreki, ez dago estalkirik, ez dago pabiloirik, esaten zutena zen txatarra hori busti egiten dela eta hezetan horrek ez diola onik egiten gero konbustioari edo fundizioari. Horrek ke isurketak areagotu egiten dituela eta, beraz, beraiek nahi zuten kamioietan iristen den txatar hori toki estali batean sartu, lehorrean mantendu, zuzenean gero labeetara eramateko. Horrek, espero, hobekuntza bat ekarriko duela ondorengo fundizioan. Hori da azken helburua, horretarako gaur onartzera goazena da tramite urbanistiko bat eta gero beraiek aurkeztuko dute proiektua eta lizentzia.

Ados?



Usurbilgo Udala

Jarraian, alkatearen proposamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.01/2016-0040

JOSE MARÍA UCÍN, S.A. enpresak Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-29 (Zelai handi) eremuko Xehetasun-Azterketa aurkeztu zuen zegokion izapidetzea izan zezan.

Xehetasun-Azterketaren helburuak bi dira: indarrean den fitxaren lerrokadurak aldatzea, ordenazio planuan zehaztu diran lerrokadura gehiengoak finkatuz; eta indarrean den fitxak ezarritako altueraren egokitzapena.


Alkatetzak 2016ko ekainaren 2an, udal teknikarien txostenak kontutan izanik, 2016/0531 zenbakidun dekretuaren bidez, zera erabaki zuen:

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-29 (Zelai handi) eremuko Xehetasun-Azterketa hasieraz onartzea ondoko baldintzarekin.

BIGARRENA: Sustatzaileari, JOSE MARÍA UCÍN, S.A. enpresari, erabaki honen jakinarazpena jasotzen den biharamunetik kontatzen hasita, 15 laneguneko epean, Xehetasun-Azterketa bi hizkuntzetan (euskaraz eta gaztelaniaz) eta teknikari gaituaren aitortpenarekin batera aurkezteko agintzea. Xehetasun-Azterketa ez da behin betikoz onartuko aurreko baldintza bete bitartean.

HIRUGARRENA: Udal arkitektoak adierazitakoaren arabera, behin Xehetasun Azterlana onartu eta obrak edo jarduera handitzeak/moldaketak egin nahiko balira, sustatzailea, JOSE MARÍA UCÍN, S.A. enpresa, ondokoaz ohartaraztea:

- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ezarritakoa bete beharri dagokionez, IHOBE S.A. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak egindako EAEko lurzoruaren polutzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioan eta haren aurreikuspenen arabera, JOSE MARÍA UCÍN S.A.-K aurkeztu duen jarduera ezarri nahi duen lurzoruan kutsatua egon liteke. Hortaz, jarduera handitu edota obrak egiteko lurzorua kutsa dezakeen jarduera jasan duen lursail batean kokatuko litzatekeenez; horren inguruan kontsulta egin beharko Autonomia Erkidegoko Ingurumen Organoari (1/2005 Legea 17.1.) eta ezinbestean beteko dira 1/2005 LEGEAK kasu hauetarako ezarritako jarraibideak.
- Ezinbestean lortu beharko da aurrez URA Agentziaren baimena, eremua uholdegarritasun azalera kokatzen delako.



Usurbilgo Udala

- Altzadia dela-eta, dagokion Ingurumen Inpaktuaren Azterlana izapidetu beharko da.
- Oro har, hirigintza fitxak ezarritakoak bete beharko dira.

LAUGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohizko egunkarietan argitaratuz, interesatuek azterlana aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

Hartutako erabakia kontutan izanik, espedientea jendaurrean jarri zen 20 lanegunez ondoko iragarkia argitaratuz:

- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (109. zenbakia): 2016-06-09
- BERRIA: 2016-06-07
- GARA: 2016-06-04
- EL DIARIO VASCO: 2016-06-07

Espedientea jendaurreko epealdian egon den bitartean ez da alegaziorik tartekatu.

Bestetik, JOSE MARÍA UCÍN, S.A. enpresak Xehetasun-Azterketaren ale berriak eta beste zenbait dokumentazio gehigarri aurkeztu ditu.


Udal arkitektoak, Jone Miner Aginaga andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2018ko maiatzaren 10ean, honako txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
PLANEAMENDUA
A-29 (C/SE) ZELAIN HANDI EREMUKO XEHETASUN
AZTERLANARI TXOSTENA

KOKAPENA: A-29 ZELAIN HANDI EREMUA, Usurbil.
ESKATZAILEA; JOSE MARÍA UCÍN, S.A.
ESKAERA DATA; 2018ko apirilaren 5a
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.01/2016-40

1. AURREKARIAK:

- 2016ko otsailaren 8an JOSE MARIA UCIN S.A. enpresaren izenean A-29 ZELAI HANDI eremuaren Xehetasun Azterlana aurkeztu da, Udalak izapidetu dezan.
- 2016ko otsailaren 16an behean izenpetzen duen teknikariak AURKAKO txostena idatzi zion.
- 2016ko otsailaren 26an interesatuak Xehetasun Azterlan berria aurkeztu zuen, behean izenpetzen duen teknikariak oker zeuden puntuak mail-ez eta ahoz adierazi zizkiolarik.



Usurbilgo Udala

- 2016ko maiatzaren 16an interesatuak Xehetasun Azterlan zuzendua aurkeztu du.
- 2016ko maiatzaren 17an udal arkitektoaren ALDEKO txostena.
- 2016ko maiatzaren 18an udal idazkariaren txostena xehetasun azterketaren izapidetzari buruz.
- 2016ko ekainaren 2an alkatearen dekretuz Xehetasun Azterketa hasieraz onartu da.
- 2016ko ekainaren 9an GAO n argitaratu da eta ekainaren 6 eta 7an ohiko egunkarietan.
- 2016ko uztailaren 8an hirigintza departamenduko idazkariak jendaurreko epealdian ez dela alegazioarik egon ziurtatu du.
- 2017ko urriaren 3an interesatuak Xehetasun Azterketaren itzulpena aurkeztu du (euskaraz).
- 2017ko urriaren 27an udal arkitektoak dokumentazio gehigarria eskatu du, dokumentuaren 2. eranskina euskaraz ez delako aurkeztu.
- 2017ko azaroak 6an interesatuari Xehetasun Azterketaren itzulpen osoa eta teknikari gaituaren aitortzea aurkezteko eskatu zaio berriro ere.
- 2017ko abenduaren 13an udalak hasieraz onartutako Xehetasun azterketaren kopia bidali du Kantabriar Hidrografiako Konfederaziora.
- 2018ko apirilaren 5ean interesatuak Xehetasun Azterketaren 2 kopia aurkeztu ditu auskaraz eta gazteleraz.
- 2018ko apirilaren 11ean EJko Ingurumen, lurralde plangintza eta etxebizitza saileko txostena jaso da Jose Maria Ucin S.A. enpresari aurkeztutako aldaketaren ez funtsaezkotasuna jakinaraziz.
- 2018ko maiatzaren 9an emailez jaso da teknikari gaituaren ziurtagiria eta tituluaren kopia konpultsatua.

2. TXOSTENA:

JOSE MARÍA UCIN S.A. enpresak A-29 ZELAI HANDI eremuko Xehetasun Azterlana aurkeztu zuen Usurbilgo Udalak izapidetu zezan. Xehetasun azterlana ingeniariak izenpetua eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsi gabe zegoen eta ez zen teknikari gaituaren aitortzearekin aurkeztu.

Hala, udalak Xehetasun Azterketa hasieraz onartu eta jendaurrean jarri zuen 2016ko ekainaren 2an (GAO 2016-06-09). Baina honako baldintzak ezarri zizkion xehetasun azterketa behin betiko onartu ahal izateko: 15 laneguneko epean, Xehetasun-azterketa bi hizkuntzetan eta teknikari gaituaren aitortzearekin batera aurkezteko.

Geroztik, interesatuak itzulpena aurkeztu zuen (2017ko urriaren 3an) eta teknikari gaituaren aitortzea ere bai (2018ko maiatzaren 9an). Nahiz eta itzulpena osoa ez izan (izan ere dokumentuaren II. Eranskina ez zen itzulita aurkeztu) eranskin horretako URAREN txostena bi hizkuntzetan dago; beraz, ontzat eman daiteke aurkeztutako itzulpena.



Usurbilgo Udala

Bestalde, 2018ko apirilaren 5ean interesatuak Xehetasun Azterketaren bi ale berri aurkeztu ditu, bata gazteleraz eta bestea euskaraz. Dokumentu hau osatzen dutenak honakoak dira: memoria eta planuak.

Dokumentuaren 3. puntuan adierazten denez, Xehetasun Azterlanaren xedea da:

“El objeto del presente Estudio de Detalle es adaptar las determinaciones de Ordenación Pormenorizada establecidas por las Normas Subsidiarias de Planeamiento del Área A-29 (C/SE) ZELAI HANDI de Usurbil, para la ordenación del área, modificando las alineaciones y alturas máximas, regulando aquellos aspectos previstos para la edificación y urbanización de dicha Área, según las necesidades de la empresa JOSE MARÍA UCIN, S.A.”.

Xede hori zehaztuz, 4. puntuan esaten da:

“ Posibilitar la ampliación de la industria existente en el área, determinado las alineaciones y alturas máximas de las edificaciones.

En los planos adjuntos se indican las alineaciones y alturas máximas según la cartografía utilizada en la que se incluye la parte urbanizada y legalizada para lo cual se modifica el plano aprobado inicialmente con su correcta delimitación, y podrán ajustarse justificadamente en los proyectos correspondientes, dando cumplimiento a las determinaciones urbanísticas que se señalan.

(...)

La ampliación tendrá las mismas características que la actual edificación, con la superficie de ocupación señalada en los planos de las fichas de características para esta área. En general, dispondrán de la misma altura, a excepción de aquellas edificaciones o parte de las mismas que requieran una altura libre mayor por motivos concretos para el desarrollo de la actividad, que deberán de ser justificadas en el proyecto de obra correspondiente.

La actuación permitirá la formación de un paseo peatonal al borde del río”.

Aurkeztu den dokumentazioa eta espedientea aztertuta, honakoak esan daiteke:

- **2/2006 LURZORUAREN LEGEAREN APLIKAZIOA:** 2/2006 Lurzoruaren legeak 73. artikuluan Xehetasun Azterlanak definitzen ditu, haien helburuak finkatuz eta 74. artikuluan edukia zehaztuz. Aurkeztu den dokumentuak helburu eta eduki horiek betetzen ditu.
- **XEHETASUN AZTERLANAREN HELBURUAK:**
 - x **indarrean den fitxaren lerrokadurak aldatzea:** ordenazio planoan lerrokadura gehiagoak finkatu dira. Ikusi da lerrokadura berri horiek betetzen dutela fitxak ezarritako gehieneko okupazioa, beraz ez dago eragozpenik.
 - x **Indarrean den fitxak ezarritako altueraren egokitzapena:** esaten da, orokorrean egungo eraikinaren altuera baino handiagoak baimendu litezkeela, baldin eta erabilerak altuera gehiagoren beharra justifikatzen badu.



Usurbilgo Udala

Irizpide bera erabili da beste eremu batzuetan eta beraz, ez dago eragozpenik.

- **HASIERAKO ONESPENENKO DEKRETUAN EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZEA:** Udalak honako baldintzak ezarri zituen xehetasun azterketa behin betiko onartu ahal izateko: 15 laneguneko epean, Xehetasun-azterketa bi hizkuntzetan eta teknikari gaituaren aitopenearekin batera aurkezteko. Goian azaldu den moduan, eskatutakoak aurkeztu dira.
- **HASIERAKO ONESPENA JASO ZUEN DOKUMENTUAREKIKO ALDAKETAK:** N-634 errepedearen kontra dagoen berdegune publikoa pixka bat txikitu da hasierako onespena jaso zuen dokumentuarekiko. Aldaketa errealitatera egokitzeko egin dela dirudi, beraz, onargarria da.
- **UR AGENTZIAREN BAIMENA:** Xehetasun Azterlana behin betiko onartzeko UR Agentziaren aldeko txostena jaso behar da aurretik.
- **LUR KUTSATUAK:** 4/2015 LEGEAK, ekainaren 25ekoak, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoak ezarritakoa bete beharri dagokionez adierazten da, IHOBE S.A. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak egindako EAEko lurzoru kutsatuen inbentarioaren arabera eremu hau kokatzen den lurzoru kutsakorrek izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak dituzten lursailen inbentarioren sartuta dagoela (kodea:20073-00005). **Beraz, behin Xehetasun Azterlana onartu eta obrak edo jarduera handitzeak/moldaketak egin nahiko balira, ezinbestean beteko dira 4/2015 LEGEAK kasu hauetarako ezarritako jarraibideak.**

3. ONDORIOAK

Goian aipatutakoari jarraiki, A-29 ZELAI HANDI eremuko Xehetasun Azterlanari ALDEKO txostena idazten zaio, behin betiko onespena eman aurretik UR Agentziaren aldeko txostena jasotzeko baldintzapean.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2018ko maiatzaren 10ean.

UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Jone Miner Aginaga

Bestetik URA ur agentziaren ALDEKO txostena jaso da.

Guzti hau kontutan izanik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

ERABAKIA



Usurbilgo Udala

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-29 (Zelai handi) eremuko Xehetasun-Azterketa behin betikoz onartzea.

BIGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-29 (Zelai handi) eremuko Xehetasun-Azterketa Foru Aldundira igortzea, bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin.

HIRUGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-29 (Zelai handi) eremuko Xehetasun-Azterketaren behin betiko onspena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hirigintza-plana Foru Aldundiko hirigintza plangintzaren erregistro administratiboan jaso dela aipatuz.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri JOSE MARÍA UCÍN, S.A. enpresari ematea, Xehetasun-Azterketaren izapidetze gastuak helaraziz.”

Bozketa egin da, emaitza honekin:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

13.- GALDERA-ESKAERAK.


JOSUNE URKOLA: Nik daukat gai bat. Prentsan sorpresaz harrapatu gaituena da. Airearen kalitatea neurtzeko kabina zegoen Lasarten jarrita eta itxura denez sabotai bat izan du edo zerbait egin diote. Enteratu gara kabinak instalatu behar zirela Lasarten eta Usurbilen, Usurbilen bi gainera, bat hemen herrian eta bestea Zubietan. Gauza da irailan egin zela eskaera eta Udalak ez duela erraztu.

Kabinak instalatzekoa Ingurumen Baimen Bateratuan agertzen den betebeharrak bat da, Lasarteko tratamendu instalazioen inguruko airea neurtzeko.

Pixka bat harridura geratu gara ikusita herri honek daukan arduraren osasunarekin, zergatik kabina horiek ez dauden instalatuta Usurbilen.

ALKATEA: Egia esan ez dakit, agian Ingurumen sailetik informazio zehatzagoa daukazue.

JOSE MARI IRIBAR: Bat martxan dago, elizan jarrita, hori Bio-Donostiak jarrita dago. Bestea teknikoki tramitaziotan zebiltzan, azkenean toki batera heldu ziren ona izan litekeena, Agerialdeko errotondaren gaikaldean. Hor badakit teknikoki adostasun falta



Usurbilgo Udala

zeukatela zer neurtu behar zen. Gure teknikoak eskatzen zuen beste parametro batzuk neurtzea eta horretan dabilta.

JOSUNE URKOLA: Baina kabinak jarrita daude?

JOSE MARI IRIBAR: Bigarrena ez. Udaleko teknikariak eskatzen zuen beste parametro batzuk neurtzea eta beste aldeak ezetz zion.

ALAITZ AIZPURUA: Zubietakoa ere jarrita dago.

JOSUNE URKOLA: Baina Usurbilgo lurretan edo Donostikoetan?

ALAITZ AIZPURUA: Donostikoetan.

JOSUNE URKOLA: Noski, Donostikoetan, Usurbilgo Udalak hasiera batean baldintza batzuk jarri zituelako. Hau da, hasiera batean Usurbilgo Udalari eskatu omen zitzaion eta Udalak baldintza batzuk jarri zituenean, Zubietan jarri zen baina Donostiako lurretan. Pixka bat deigarria egiten zaigu.

JOSE MARI IRIBAR: Baldintza erabat teknikoak dira.

ALKATEA: Eztabaida parametro teknikoetan ematen ari da eta gehienbat da iruditzen zaigulako horrelako kabina bat jarrita bete behar direla baldintza batzuk. Oso inportantea iruditzen zaigu hori, ze bestela imajinatu zuk ez dituzula behar bezala neurtzen eta azkenean oso erraza da hor gauza bat jartzea ez dakit zer eta nola neurtzen duena eta esatea honek dena parametro onetan ematen du. Orduan, gure ingurumen teknikariak azterketa bat egin zuen eta esan zuen "ondo, baina neurtzekotan neurtu behar da hau, hau eta hau eta horrela eta horrela". Nik uste dut horretan ari direla, baina udal honek ez du inongo ezezkorik eman.

ALAITZ AIZPURUA: Besteak beste, eta oker ez baldin banago zuzenduko didazu Karmele, baina justu Ordenantzan aldatu dugun prezioa, 1,5 jarri duguna terrazena eta, horrek eraginda da.

KONTU-HARTZAILEA: Bai, okurritu zitzaiguna lehenengo baimena iritsi zitzaigunean, eta badakit bere garaian teknikariarekin hitz eginda bigarrena aztertzen ari zirela, baina lehenengo horrekin jarri ginen gu martxan.

ALAITZ AIZPURUA: Hutsune horrekin konturatu ginen, terrazak eta kontenplatuta daude baina espazio publikoak okupatzeko beste erabilera batzuk ez eta horregatik txertatu da ordenantzan aukera hori, esan nahi dizudana da normal tramitatzen ari dela.

JOSUNE URKOLA: Harrigarria iruditzen zaiguna da beste herrietan kolokatuta daudela eta ja martxan daudela eta Usurbilen ez, hori da deigarria iruditzen zaiguna.

ALKATEA: Azalpenak entzun dituzu. Badakigu herri askok argi berdea ematen diotela horrelako proposamenei inongo espiritu kritikorik gabe eta gero gauzak horrela egiten



Usurbilgo Udala

direla. Guk oso serio hartu dugu gai hori eta uste dugu herrian airearen kalitatea neurtzea oso egokia izan daitekeela, beti ere, gauzak ondo egiten badira eta behar bezalako berme eta baldintzekin. Uste dut gure teknikariak lan serio bat egiten duela eta, azkenean, horretan ari dela. Ez dago esaterik Usurbilek ez dakit zer egin duela, baizik eta egitekotan lana ondo eta exijitu behar dena exijitzen ari dela, besterik gabe.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:10etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.